



uk

218. zenbakia / 2012ko uztairearen 24a

URTERO 20€


Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urtero argazki zahar eta barriak
Urtero zure proiektuak lau haizetara
Urtero 20 euro

uk  **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.**

uk www.ukaldizkaria.biz **neuk ere gura dot** **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga
ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagarmínaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTU-ORRAZTEA: Zortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Bermeo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Erandio Udala	 Sopelana Udala
 Urduliz Udala	 Plentziako Udala
TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTAZTEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Itsasontziaren buelta Altzagan.
6. FACEGUK. Zer ekarriko digu irailak?
7. LEHEN ETA ORAIN. Arrigunaga.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mari Carmen Rodriguez.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxo Sea Week.
28. ARGAZKIA. Portu Zaharreko jaiak.
30. BERBETAN. Ana Urrutia.
34. FOTOGRAFIA. Goierri Sokatira taldearen antzinako argazkiak.
40. SAKONEAN. Futbola, Uribe Kostan eta Bizkaian.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Basartena Film Labor Lehiaketa.
43. MUSIKA. Getxo Folk iraillean.
44. LIBURUAK. Estepan Urkiaga *Lauaxeta*.
45. KIROLAK. Billabong Sopelana Pro Junior txapelketa.
46. ELKARRIZKETA. Alvaro Gurrea.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Patata-xafra pateagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Gorlizko Fano auzoan, 1970.
54. AITORMENAK. Amets Arzallus.

Azala: Asier Mentxaka

www.ukaldizkaria.biz




30 Ana Urrutia

Berbetan

Egurdia-ko (ETB) aurkezleagaz atmosferaren egoeraz eta surfaz berba egin dugu.



11 Mari Carmen Rodriguez



54 Amets Arzallus



Dacia Lodgy berria

Monobolumen handi bat

9.900€-tik aurrera¹

Aukeran 5 edo 7 plazakoa
 GPS nabigatzailea inkorporatuta
 Maletategiaren edukiera: 2.600 dm³

1 URTE² ASEGURUA DOAN | **3 URTEKO³ BERMEA EDO 100.000 km**

Dacia España **Dacia ESP**

www.dacia.es / 902 245 200 | **Descúbrelo en tu Concesión Renault-Dacia.**

1.) Adierazitako PSP penintsulan eta Balearretan da ballagarria 12/06/30era arte, Lodgy Base 1.6 60 kW (85 ZP) modelo erosteko, zergak barne. Ekipamenduak bertsioaren araberakoak dira. Argazki modelo: Lodgy Laureate TCE 85 kW, 16^o ko haguekin; gomendatutako PSP: 14.632 €. **2.)** Arrisku orotarako aseguruia doan lehen urtean, 300 €-ko frankiziarekin 30 urtetik gorakoentzat eta 600 €-koarekin 30 urteko edo hortik beherako bezeroentzat, Mapfre aseguru-etxearekin. Eskaintza Lodgy gamako ibilgailu berri bat erosten duten partikular eta autonomoztat da aplikagarria 12/06/30era arte, RCI Banque-rekin finantzatzuz gero (gubuzenez finantzatu beharreko zenbatekoa: 4.000 €). Aseguruia RCI Banque Sucursal en España enititateak oparitua da. **3.)** Lehen bi urteetarako bermea kilometraje-mugarik gabea da. Bigarren urtetik aurrera, bi baldintzetako bat gauzatzen denean amaituko da bermea.

Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO₂ emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa. Dacia recomienda **elf**

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

EH BILDU

EH Bilduk badauka Euskal Erkidego Autonomoa gobernatzeko gogoia. Ia 40 urte pasatu behar izan dira, 'Vascongadas' mesprexuz deitzen zutenetik, eurentzako 'Euskal Herria' (behintzat zati bat) izatera. Ongi etorri... nahiz eta berandu etorri. Eta garai berri hauetarako, ...gobernu 'berriak': Euren eskuetan barne sailak, esaterako, 'herritarren askatasuna' izena edukiko luke. Ez dot oso ondo ulertzen izen-aldaketa horrek ekar dezakeen onura. Hobeto ulertzen dot baina, helburua: ordura arte egindako lana herritarren askatasunetik kanpo jorratu izan balitz bezala agertzea. Polizia beti eta edonon polizia da, berez oso gatazkatsua eta zaila kudeatzeko gizartearen aurrean, nahi eta nahi ez, indarkeriaren mugan mugitzen delako, eta ez beti, behar den profesionaltasunarekin, Iñigo Cavacasen heriotzaren inguruan gertatutakoak erakutsi digunez. Horregatik desiratzen nago EH Bilduk irabaztea, gure polizia (besteak beste) zelan gobernatzen duen ikusteko.

gu geu**Urte erdia joan da-eta!**

Irailera arte agurtzeko momentua iritsia da... Faltan botan ez gaitzazu UK hau duzu irakurtzeko, irailerako kontuak ere jasotzen ditu... eta ziurrenik denborak utzi ez dizun beste UK-ren bat ere izango duzu hortik gordeta "lasainabileneanirakurtzeko" gordetzen direnen artean... Guk, merezi ala ez, oporrak hartuko ditugu... Joan den urte erdiaren erdia baino gehiago diru-laguntzak direla-eta sufritzen ibili ostein, 2. erdirako aurreikuspenek sufriarazten badigute ere... Erdiaren erdia sufritzeko Ekik beroz indarbarri gaitzala... Baina zer eguraldi dakar abuzturako?

UK-ko lan-taldea**Iritzia**

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideon izenean, Eider Carton (Elhuyar), Joanmari Larrarte (Berria Taldea), Xabier Letona (Argia) eta Mikel Irizarren (Tokikom) iritzia.

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri-ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntza partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izatera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarriko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro

«Bidea txalotu eta elkarlanerako prest (...) baina praktika bestelakoa»

horietara egokitzeke: diru-iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiarenean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri-ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia

Herri-ekimeneko euskarzako hedabideok hausnarke-ta-mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eska-

inguruko jardura ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoa egiten ari gara euskal hedabideok garai berri

era zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru-laguntza politika aldatu eta hitzarmen ereduia ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntza-irizpideak pisu handiagoa izan dezala.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen bizirapena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Danon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri-ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri-ekimeneko euskal hedabideok beharrezko jarraituko dugu, egoera berrietara egokituz, kalitatezko euskarzako informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideak

[irudia]



ERANDIO, 2012KO UZTAILA

Buelta erdia emonda... / Irudiko itsasontziak Altxagan buelta erdia emon eta erorritako biderik jarraitu zuen... Itsasadarretik itsasontzi gixiago sartzen dela entzun diegu inguruetako jendeari... Agian, eguraldia ikusita Kariberako bidea hartuko zuen... Edota meatzarien deia jasoko zuen, elkartasunez, zamarik ez porturatuzko eskatuz... Baliteke krisiaren aitzakiaz, zekarrarena saltzeko eroslerik ez izatea... Akaso, kapitainaren portuko maitaleak larregi ixaron izana iritzita agur eta buelta erdia emoteke esatea... Gauzak okertzen direnean, batzuetan, horiei buelta osoa emoteke izaten da onena... / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer ekarriko digu irailak?



Plentzia

Carlos Gomez

> funtzionarioa

Nik espero dut gizartean gauzak aldatzea; agintariek esaten dute egoera ekonomikoa aldatuko dela, hobera egingo duela, baina nik hori benetan gertatzea gura nuke: gauzak erabat aldatzea.



Algorta

Urko Borrero

> ikuskatzailea

Lan hobea topatzea espero dut; izan ere, beste lan bat topatuko banu, diru gehiago irabaziko nuke. Eta hori nahiago dut. Horrez gain, neska-laguna topatzea ere gustatuko litzaidake.



Romo

Idoia Muñoz

> euskara-irakaslea

Irailak hainbat gauza ekartzea espero dut; alde batetik, lan-baldintzak hobetzea, berbarako, goizago amaitzea lana; beste aldetik, euskaltegia jendez lepo egotea espero dut, lana egoteko. Oro har, irailean gauzak hobetzea espero dut.



Getxo

Javier de los Rios

> langabea

Langabezian nago, eta irailerako lana topatu gura dut. Horrela, lana aurkituko banu gurasoen etxetik joan ahalko nintzateke. Hortaz, irailean lana topatzea espero dut.



Berango

Jon Alaña

> kontsultorea

Irailean gure txikiak eskolara joan beharko du lehenengoz, eta egokitzapen epea igaro beharko du. Espero dut egokitzapen epe hori laburragoa izatea, eta umea arazo barik egokitzea eskolara.



Berango

Zuriñe Murgia

> irakaslea

Irailean lana izatea espero dut, hau da, lana izaten jarraitzea espero dut. Bestalde, osasun arazorik ez izatea espero dut. Orain nagoen moduan jarraitu nahiko nuke; badakit topikoa dela, baina egia ere bai.



GETXO UDAL LEJURITEGA



ASERMENTAZA

Iraganez doa denbora* beti / ARRIGUNAGA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > eskeko autonomia



Areeta, 2011ko iraila

Testua: **Josu Arroyo Izkoa** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Euskal Herriko lur maite hartan

Ezer gutxi du sinesgarritik bankuen konpromisoak, gezurrez hustu dituzte eta bezeroen poltsikoak. Saxofonistak pentsatuko du: "zer ote dakar geroak?" Martxa honetan segituz gero, goia joko du gremioak: makinatxo bat izango dira eskeko autonomoak.

Normalena da bankuen berbak zaborretan bukatzea; hartatik urrun, kaleko artistak musikan du aterpea. Haren aukera, kale gorria doinu goxoz betetzea. Gerta liteke gehientsuenok ez-ikusit egitea... Maleta hutsik izanagatik, alde dauka adorea.

Atzo fabrika itxi dutela, gaur beste bi, bihar hamar... Daukagun horri duin eusteko denok ere larri samar. Eta guztia galduta ere, berriro altxatu behar. Saxofonistak kantoi hobe bat topatu beharko du bihar... Musikak behintzat emango ahal dio bizitzeko beste indar!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

INPRIMATEGIA GARA!
1000 gutun-orri + 500 gutun-azal + 200 txartel
229€
Eskaintza berria **5 BLOK Debalde**
Eskaintza uztailearen 15ean bukatuko da
Cianoplan
www.cianoplan.es

getxophoto > abuztuak 30-irailak 30

Info+: www.getxophoto.com

Iazko urtean zahartzaroari egin bazion, aurton "Umeei gorazarre" egingo dio Getxophoto argazki-jaialdiak. Begihandik antolatutako jaialdiaren seigarren ekitaldia da abuztuaren 30etik irailaren 30era egingo dena, eta Ereaga hondartzatik Portu Zaharreraino doan gunea izango du erakusketa-ardatz nagusi. Hirugarren urtea du Frank Kalero komisarioak Getxophotorako aukeraketa lanetan, eta aurtent-

go egin duen hautaketak, jaialdiko zuzendari Jokin Aspuruaren esanetan, "...Orain-go honetan umezaroak berez duen askatasuna erakusten du, betebehar bako aroa baitugu". Guztira, herrian barreatuta egongo diren 20 erakusketez, "nazioartean ospetsuenak diren argazkilarienak", gozatu ahalko da; lantegiak, bisita gidatuak, "Geroari Gozarre" ekimen partehartzailea e.a. ere antolatu dituzte. ○

kxo! > smartphone-etan euskara ikasteko

Elhuyarrek euskara ikasteko smartphonearako (Android eta iPhone) garatu duen aplikazioa da *Kxo!* Azaldu dutenez, euskarazko oinarritzko hiztegia ikasteko aplikazioa da, eta horren bidez gaztelania, ingelesa edo frantsesa abiapuntuztat hartuta euskara ikasi ahalko du erabiltzaileak. Argi adierazi duten legez, "aplikazio honek euskararako lehen hurbiltzea izan nahi du, eta haren helburua da euskaraz

ezer ez dakieneri edo euskara apur bat baino ez dakieneri ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresnak eskaintzea. Horretarako, entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurri eta idazteko ariketak erabiltzen ditu". *Kxo!*-ren edukia Moblang (Moblang Basic Language Courses by Moblang Project) europar ikerketaproiektuaren ondorioetatik hartua dute. 3 euroan dago salgai. ○

Info+: www.elhuyar.org/kxo!info+: www.aranzadi-zientziak.org

bilatzailea > monumentu megalitikoak sarean

Aranzadik monumentu megalitikoaren eta aztarnategien bilatzaile kartografikoa ipini du sarean. Zientzia elkartearen webguneko bilatzaileak 250 monumentu megalitikoaren kokapen zehatza (herria, eskualdea, mapa), informazio osagarria (garaia, fitxa, bibliografia) eta argazkia aurki daitezke momentuz. Oraindik Gipuzkoako trikuharri, harrispil, harkutxa eta zutarriak (tumulo,

kromlech eta dolmen) bakarrik daude kontsultagai; oster, iragarri dutenez, beste lurraldeetako monumentuak ere gehituko dituzte aurrerantzean. Horrez gainera, erakusten duten mapan Gipuzkoako gaztelu, herri-gotorleku eta beste hainbat aurkikuntza ere jasoko dituzte laster. Bilatzaile kartografiko birtuala Aranzadik sarean duen atariaren Arkeologia atalean dago. ○

siazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
...harria ...lehen go garaiak... ...itsasoa
www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



Hurrengo irabazlea: zeu!

Gidabaimena euskaraz

“Gidabaimena euskaraz” kanpaina, Getxoko, Erandioko eta Uribe Kostako Mankomunitateko udaletan jarri da martxan, herriotako autoeskolen laguntzaz. 2011n, **48 ikaslek egin zuten azterketa euskaraz** kanpaina zabaldu den herrietan. Getxon, Erandion eta Uribe Kostan 28 gaztek gainditu zuten euskarazko proba.

Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenek Europan zehar trenez bidaiatzeko zozketa batean parte hartzen dute. **2011koa ere getxoztar bati egokitu zaio saria, Gorka Saitua La Torre gazteari. Zorionak!**



“Eguna amaitzean desio bakarra dut: itzalpean egotea”

Mari Carmen Rodriguez > Plentziako barkillo-saltzailea

Arrastiko bostak Plentziako hondartzan. Bero itzela, sargori, eta hondartza jendez eta eguzkitakoz lepo. Umeen oiuhu-argaren eta sorosleen oharren artean, ahots bizi eta potentzia handikoa entzuten da: “*Al barki, barki!*”. Mari Carmen Rodriguez da, Plentziako barkillo-saltzailea. Bisera buruan eta otzara eskuan, 20 bat urte daroa hondartzan barkilloak saltzen: “*Nire senarra 13 urte gaz hasi zen honetan. Bera ezagutu, eta hasieran lan hau asko gustatzen ez zitzaidan arren, honetan beharrean hasi nintzen*”. Ortuellan bizi da, baina Plentziara etortzen da udaro, beharrera: “*Uda sasoiari zeruari begina egoten naiz etengabe, eguraldi txarra dagoenean ez bainaiz hondartzara etortzen*”. Lan gogorra da Mari Carmenena: egunero lautan egiten du hondartzaren joan-etorria. “*Gogorrena barkilloen otzara eroatea da, besoa nekatzen zaidalako. Behintzat egunak aurrera joan abala husten badao... ederto!*”. Gainera, ez da barkilloa banatzeaz bakarrik arduratzen. Krask-krask, beti puntuan izaten ditu: “*Gure lokalean prestatzen dugu barkilloa, eta gero banatzen dugu*”. Betiko ohiturari eusten dio, izozki eta freskagarrien gainetik. Bere ustez, barkilloa oraindino ‘modan’ dago, ahoak urtzen segitzen du: “*Betiko bezeroek erosten jarraitzen digute*”. Arrastiko zortzietan amaitzen da bere jarduna, baina ez du bainua hartzeko gogorik izaten: “*Eguna amaitzean desio bakarra dut: itzalpean egotea*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

San Inazio jaiak Algortan

Uztailaren 27tik 31ra ospatuko dira aurten **Algortako jaiak**; egunero egongo dira **umeentzako jarduerak**, kontzertuak, **bertsolariak**, kirol-txapelketak, **bazkariak** eta **suzko zezena**



Martitzena izango da egun handia: San Inazio Eguna

Egun gitxi berru ospatuko dituzte sasinazioak algortarrek. Aurten barikua 27an abiatuko dira eta egitaraua leporaino beteta dator. Ez da faltako jolasik, musikarik, kirolrik, ezta txapelketarik ere.

Abuztuko oporrak ezin hobeto hasiko dituzte algortarrek, San Inazio jaiak ospatuko dituzte-eta uztailaren 27tik 31ra: barikutik martitzenera. Urtero legez, hamaika ekitaldi prestatu du Jai Batzordeak, adin guztietarako: koadrilentzako probak, umeentzako jarduerak, kirol-probak, sukaldaritza-txapelketak, dantzak, musika, su artifizialak, herri-bazkariak... Ekintza batzuk egunero egingo dituzte, gainontze-ko batzuk ondoko taulan daukazu.

Eguneroko ikuskizunen artean bertso-

lariak egongo dira Kasino plazan, eguerdiko 13:00etan. Gainera, martitzenerako egun osoko ekimena antolatu dute: eguerdiko saioaz gainera bertso-bazkaria eta bertso-poteoa egingo dituzte Unai Iturriaga eta Andoni Egañagaz.

«Martitzena 31n bertso-saioak izango dira egun osoan: eguerdian saioa Kasinoan, bazkaria, eta arrastian poteoa.»

Bestalde, goizero izango dira umeentzako jarduerak, eguerdiko herri-bazkariak txosnetan eta gauero umeentzako zinema (Tallagorri, 22:00etan), eta suzko zezena (Telletxen, 22:00etan). Astelehen eta martitzenera su artifizialak jaurtiko dituzte 23:00etan. Kontuz, su hartu barik gero! o

Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 27, barikua:**
 - Pregoa eta txupina (Telletxe; 18:00)
 - Koadrila-jaitiera (Telepizatik; 18:30)
 - Suzko zezena (Telletxe; 22:00)
 - Kontzertuak: Marmoka Baltzak + Muturbeltz + The Sparteens (Telletxe; 22:30)
 - Kontzertua: Bikoizten (Kasinoa; 22:30)
- **Uztailak 28, zapatua:**
 - Umeen gunea (Biotz Alai plaza; 11:00)
 - Igel eta tiragoma txapelketak (Txosnak; 11:30)
 - Goitibeherak (Mariandresenatik; 12:00)
 - Bertsolariak (Kasinoa; egunero, 13:00)
 - Umeen jaitiera eta erromeria (Zodiakos tabernatik Biotz Alaira; 18:30)
 - Jota eta Arin-arin txapelketa (Tallagorri; 22:00)
 - Kontzertuak: Kuenta Atras + Fiachras + Matxura (Telletxe; 22:30)
 - Kontzertuak: Josu Doncel eta Hush (Kasinoa; 22:30)
- **Uztailak 29, domeka:**
 - Txipirol-lehiaketa (Biotz Alai; 08:30)
 - Herri Krosa (11:30)
 - Estropadak: Getxoko Ikurriña (12:00)
 - Herri Kirolak (Telletxe; 17:30)
 - Nagusien dantzaldia (Zabala; 19:00)
 - Erromeria tradizionala (Kasinoa; 20:00)
 - Kontzertuak: Habeas Corpus + Hesian (Telletxe; 22:30)
 - Kontzertuak: Hutsa eta dolea (Kasinoa; 22:30)
- **Uztailak 30, astelehena:**
 - Koadrilen herri-kirolak (Telletxe; 13:00)
 - San Inazio jaietako jaitiera tradizionala (Biotz Alai; 19:00)
 - Kontzertuak: MIFA Sound System + Rude.Hi-Fi (Telletxe; 22:00)
- **Uztailak 31, martitzena; San Inazio:**
 - Ricardo Ochoa memoria (10:00)
 - Euskal dantzak (Telletxe; 12:30)
 - Erdizka Lauetan (Telletxe; 18:30)
 - Eneko Caballero Futbito Txapelketa: finalak (19:00)
 - Larrain-dantza (Kasinoa; 20:30)
 - Erromeria: Honat (Telletxe; 22:30)

Romotarrak abuztu hasieran > gogotsu!

Kaskarria fanfarreak emongo du pregoia abuztuaren lehenengoan



Play-back proba Santa Eugenia plazan egingo dute aurten

Uztailaren azken egunean abiatuko dira Romo eta Pinuetako jaiak, martitzenera, baina txupina eguaztenez jaurtiko dute; handik eta abuztuaren 5era ez da zereginik faltako. Ohi legez, txupina jaurtitzegaz batera irakurriko du pregoia auzoko Kaskarria fanfarreak.

Ekitaldi berezia izango da, gainera: Jai Batzordeak beltzez jantzita joateko deia egin die koadrilei eta herritarrei, ondoko lempetan: *«No jai, no party! Erromoko jai herrikiok gozatuz!»*. Izan ere, Espainiako Auzitegi Nazionalak Jai Batzordeko eta Branka Kultur Elkarte presidentek epaituko ditu iazko

jaietako egitarauan auzoko presoan argazkiak azaltzeagatik. Jaien alde lanean gogotsu jarraituko dutela ziurtatu dute.

Baina bestelako nobedaderik ere izango da aurten. Berbarako, koadrilen play-back proba Santa Eugenia plazan izango da, eta ez

«Txupinazora beltzez jantzita joateko dei egin dute»

txosnetan. Domekan, barriz, umeentzako jarduerak izango dira, nagusiek tortilla-txapelketan parte hartu bitartean. Beste hainbat ekitaldiren barri daukazu alboko taulan. o
Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke.

naturalan

Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

http://www.algorta.org
http://amumak.getxo.net
e-mail: sofaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 31, martitzena:**
 - Txikigunea (egunero: Sta. Eugenia; 11:30-14:30/17:30-20:30)
 - Herri-bazkaria (Sta. Eugenia; 14:30)
 - Mikro irekia (Sta. Eugenia; 17:00)
 - Goitibehera kalejira (El Soplador biribilgunetik; 19:30)
 - DJ Galker (Dolores Ibarruri plaza; 23:30)
- **Abuztuak 1, eguaztana:**
 - Herriko artisten erakusketa (egunero: Sta. Eugenia; goiz eta arrastiz)
 - Plater irekia (Dolores Ibarruri; 14:30)
 - Pregoa eta txupin-jaurtiketa (Sta. Eugenia; 19:30)
 - Film laburrak (Dolores Ibarruri; 22:00)
 - Las Fellini (Ganeta; 23:00)
 - Kontzertuak: Itziarren Semeak + The Bon Scott Band (Txosnak; 23:00)
- **abuztuak 2, eguna:**
 - Omenaldia Felix Arnaiz (lehenengo barrerak; 13:30)
 - Herri Krosa (Sta. Eugenia; 19:30)
 - Bertso-saioa (Sta. Eugenia; 20:30)
 - Harpa-kontzertua (Eliza; 20:30)
 - Antzerkia: Deabruak (Ganeta; 22:00)
 - Kontzertuak: herriko taldea + La Pegatina (Txosnak; 23:00)
 - Txapelketa minimal gaua (Santa Eugenia 23; 23:30)
- **Abuztuak 3, barikua:**
 - Mosteo-rally (Txikigunetik; 13:30)
 - Poteo-rally (Gobelaurreko biribilgunetik; 17:00)
 - Txitxarilloa (Ganeta; 18:00)
 - Herri-kirolak (Maiatzaren Bata; 20:00)
 - Afaría (Nagusien Etxea; 22:00)
 - Play-back (Sta. Eugenia; 22:00)
 - Canalla Rock&Roll jaialdia (Santa Eugenia 23; 23:00)
 - Erromeria: Honat (Txosnak; 23:55)
- **Abuztuak 4, zapatua:**
 - Aerobica (Txosnak; 13:00)
 - Bertso-jira (Txosnetatik; 19:00)
 - Futbol-finala (Kiroldegia; 19:30)
 - Disco-festa (Txikigunea; 20:00)
 - Ska-reggae jaialdia: Thunda Clap Sound System + Skatu + Transylvanians + Roy Ellis AKA Mr. Symarip + New York Ska-Jazz Ensemble (Txosnak; 21:30)
 - DJ Kurioi (Santa Eugenia 23; 23:00)
- **Abuztuak 5, domeka:**
 - Azoka (Ibaiondo kalea; 10:00)
 - Tortilla-txapelketa (Artaza; 12:00)
 - Bilbainadak (Txosnak; 18:00)
 - Sardina-jana (Txosnak; 19:00)
 - Sari-banaketa (Txosnak; 21:00)
 - Azken-traka (Sta. Eugenia; 23:55)

[portu zaharreko jaiak]

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 9, eguna:**
 - Umeentzako parkea (egunero 11:00-14:00 eta 16:00-18:00)
 - Txupin-jaurtiketa (12:00)
 - Haur-koadrila jaitsiera (Kasino plazatik; 12:15)
 - Umeentzako diskoteka (portuko plazan; 13:00)
 - Koadrila-jaitsiera (Kasinoa; 18:00)
 - Sardina-jana (portuko plaza; egunero, 19:30)
 - Pregoa eta Txo ezartzea (portuko plaza; 19:30)
 - Umeentzako zinema (Dr. Pedro Bilbao plaza; egunero, 21:30)
 - Kontzertuak: Ready Aim Fire + Garrasika + Tirikitrauki (21:30)
 - Suzko zezena Guzurti eta Zoro pirotekniaren eskutik (egunero, 22:30)
- **Abuztuak 10, barikua:**
 - Kukaña (10:30)
 - Igel eta tiragoma txapelketak (portuko plaza; 13:00)
 - Sokamuturra (hondartza; 15:00)
 - Bertsolariak (portuko plaza; 18:30)
 - Euskal dantzak: Itxas-Argia taldea (hondartzar handia; 21:00)
 - Kontzertuak: Hil Aiari + Kruders + Siroka + Leihotikan (22:00)
- **Abuztuak 11, zapatua:**
 - Koadrilen arteko estropada (11:00)
 - Globoflexia-tailerra (11:00)
 - Umeentzako pintura-lehiaketa (Etxetxu; 17:30)
 - Skate-tailerra (11:00 eta 16:00)
 - Beteranoen estropada (12:00)
 - Euskal Herriko orga-jokoa eta herrikirolak (errepidea; 18:00)
 - Rugby-txapelketa (18:00)
 - Bilbotarrak (portuko plaza; 19:00)
 - Txoren eszenifikazioa (21:30)
 - Koadrilen emanaldia eta musika (eszena; 22:00)
- **Abuztuak 12, domeka:**
 - Marmitako txapelketan izen-ematea (09:30)
 - Apar-festa (10:00)
 - Umeentzako arrantza-lehiaketa (erribera; 10:30)
 - Makillaje-tailerra (11:00)
 - Marmitako-txapelketa (12:00)
 - Bertsolariak (portuko plaza; 17:00)
 - Marmitako-txapelketa: sari-banaketa (17:30)
 - Kontzertua: Trikizio (21:00)
 - Koadrila-txapelketa: sari-banaketa (portuko plaza; 22:30)
- **Abuztuak 13, astelehena:**
 - Txo erretzea eta azken traka (hondartzar handia; 13:00)

Portu Zaharra > busti zaitetz abuztuko eguzkipean!

Abuztuaren 9tik 13ra ospatuko dituzte jaiak; Pijama Eguna 12an izango da



Lehenengoz egingo da koadrilen arteko estropada, abuztuaren 11n

Auzo txikia da baina giro aparta dago Algortako Portu Zaharrean eta, jaietan ere, erakutsiko dute itsasaldeko indarra. Abuztuaren 9an abiatuko dira jaiak, egunean, eta astelehena 13ko goizaldera arte luzatuko dira: Txo erre arte.

Ohiko legez, itsasoari lotuta egongo dira festak eta hutsik ez dute egingo kukañak eta hondartzako sokamuturrak: biak egingo dituzte barikuan, hilaren 10ean. Eta, zelan ez, sardinak dastatzeko aukera egongo da egunero portuko plazan, 19:30etik aurrera. Egunero abestuko dute bertsolariek eta kon-

tzertuak izango dira taula nagusian.

Bestalde, umeentzako hamaika jarduera prestatu dute: jolasez gainera, zinema ikusi ahalko dute gauero, eta skate-tailerrean parte

«Skate tailerra eskainiko du La Kantera eskolak zapatua 11n, goiz eta arrastiz»

hartu ahalko dute zapatua 11n. Baina, duda barik, Pijama Eguna noiz iritsiko irrikan egongo dira auzotarrak: abuztuaren 12an izango da, marmitako-txapelketagaz batera. ◯

Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke

**Zure publizitatea
hemen**

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

Zein da pintxorik onena?

Romoko tabernek egingo dute **pintxo-lehiaketa** uztailaren **29an**, jaien aurretik



Pintxoak 0,90 euro kobratuko dituzte

Abuztuagaz batera iritsiko dira jaiak Romora, baina giroa berotzen hasiko dira aurreko aste akabuan, Pintxo Egunagaz. Badira hiru urte antolatzen dutela auzoko tabernek eta, aurten ere, ez dute hutsik egingo: uztailaren 29an izango da Pintxo Eguna, eguerdi partean.

Aurten 16 tabernak parte hartuko du, iaz baino bi gehiagok (zabaldu barriak dira-eta): Arenas (Lope de Vega kalea, 10), Arotza (Gobelondo, 1), Azkena (Amalloa, 7), Baste (Kresaltxu, 1), Billares (Urkizu, z/g), Ederra (Santa Eugenia, 2), Gobela (Los Puentes, 8), Iratxe (General Etxague, 44), Kandilejas (Ur-

kizu, z/g), Koldo (Kresaltxu, 3), La Mona (Gobelondo, 2), Museo (Kalamua, 6), Texas (Maiatzaren Bata, 2), Trokazulo (Aurrezki Kutxa, 24), Ondategi (Lope de Vega, 22) eta Urdin (Kresaltxu, 5).

Tabernarien asmoa da kalean giroa sortzea eta auzoa bizibarritzea, batez ere jaiari begira; eta lortzen ari direla uste dute. Horretarako, pintxoak prezio berezian salduko dituzte: 0,90 euro bakoitza. UK aldizkarian hainbat proposamen egin du ikasturte honetan Portu Zaharra tabernako sukaldariak, zenbakiz zenbaki, Pintxotan atalean. Baina zein izango ete da Romoko mokadurik gozoena? ◯

ATARA EGIZU GIDA-BAIMENA EUSKARAZ!

Gida-baimena euskaraz ateratzeagatik laguntzak emongo dituzte Getxok, Erandiok eta Uribe Kostako Mankomunitateak, Bizkaiko beste Udal batzuekatz batera. Azterketa teorikoa euskaraz egiten duenari 100 euroko laguntza emongo diote eta hiru sari zozketatuko dituzte: 100 litrotarako erregai-txartela, asteburuko egonaldia landetxe batean eta iPad 3 gailu bat.

EMAKUMEEN EKARPENA, IKERKETA-BEKA ABIAN

Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenari buruzko ikerketarako beka-deialdia deitu du Udalak bigarrenenez, "emakumeek historian eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko edota politikoan egin duten ekarpena berreskuratzeko eta ezagutzera emateko" asmoz; 8.000 euro emongo dute eta irailaren 15era arte aurkez daitezke lan-proiektuak.

Info+: www.getxo.net

SEI GETXOZTAR BIZKAIKO TXAPELKETAN

Eskualdekako Bertsolari Txapelketak jokatu dira eta sei getxoztar sailkatu dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako: Arrate Illaro eskualdeko txapelduna eta Imanol Uribe, Josu Landeta, Itxaso Paia eta Ekaitz Larrazabal. Peru eta Inazio Vidal leioaztarrak ere sailkatu dira eta, gainera, finalaurrekoetan zuzenean sartuko da Jone Uribe, aurreko Uribe Kostako txapelduna. Zorte on guztioi!

BELDUR BARIK, IRAILEAN EKIMENA GETXON

Abiatu da aurtengo Beldur Barik kanpaina *Hamaika jarrera, hamaika aukera!* lemapean, gazteen artean "errespetua, berdintasuna eta indarkeria sexistaren prebentzioa" sustatzeko. Hainbat ekimen izango da, eta Getxon, tailerra egingo dute Gaztelekuan irailean, ikusentzunezkoak erabiltzen ikasteko. Informazio gehiago daukazu www.beldurbarik.org/tag/getxo guanean.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Mabel Vera > Pintxo Lehiaketan irabazlea

“Lehiaketagaz jendea betiko tabernatik urten eta pintxo bila mugitzen da beste zonaldeetara”

‘Herritik Herriarentzat Leioako Jai Batzordeak’ bigarren urtez antolatu du Pintxo Lehiaketa San Juan jaien aurreko aste akabuan. Aurten, Politxe tabernakoek irabazi dute, otarrainkaz eta hirugiharrez egindako pintxoagaz. Mabel Verak, bertako nagusiak, tabernan hartu gaitu eta bere poztasuna agertu digu. Duela urte bi hartu zuten Politxe taberna senarrak eta berak.



Iparragirre etorbideko 56.ean dago Politxe taberna

—Zorionak, eta esaguzu, zelakoa da pintxo irabazlea?

—Otarrainka pintxo da, hirugiharrez bilduta. Ogi-xerra eta urdaiazpiko zati baten gainean. Gaietik berakatz frijitua eta modena-saltsa apur bat daroa.

—Tabernan aurretik inoiz egin duzue?

—Aurretik ez, baina lehiaketa izan zenezetik bai; aste akabuetan egiten dugu, bezeroek eskatzen digute-eta. Arrakasta handia izan du eta jendea pintxoaren galde dator oraindino ere.

—Iaz ere parte hartu zenuten?

—Bai, lehiaketa bietan parte hartu dugu. Sorpresa hartu genuen orduan, tabernagaz hasi barriak ginen eta inork ez genekien ondo zelan urtengo zen. Pintxo gitxi egin genuen, lehen egunean zortzi beste-

rik ez, eta oso labur lotu ginen. Aurten 300 pintxo inguru saldu dugu.

—Asko da hori, ezta?

—Bai, oso ondo joan da. Lehiaketa-ordua amaitu ostean ere galdetzen zigiten pintxo eta genuen. Herriko koadri-lerantzen zuten eta kanpotik ere etorri zen jendea, alboko herrietatik.

—Zer deritzezu horrelako ekimenei?

—Oso ondo. Jende askok parte hartu du, ez bakarrik gazteek. Normalean jendea

beti taberna beretan ibiltzen da, baina lehiaketagaz, herrian mugitu zen pintxo bila, zonaldez zonalde: joan-etorri handia egon zen. Ez genuen egin irabazteko asmoz, baizik eta parte hartzeagatik; eta irabaziz gero, hobeto: ez genuen espero eta oso pozik gaude. Gainera, negoziari oso ondo etorri zaio: taberna ezagunagoa egin da, jendeak irabazi dugula entzun, eta pintxoaren bila baitator. Bazen garaia horrelako zer edo zer egiteko. ○

Poesiaren bidea EHUn

Kanpusean ipini dute **poesia-erakusketa: 40 poema** eta hainbat **eskultura**



Harlauzetan irakur daitezke poemak

“**Poesia zalpalduz pasea daiteke uni-berbitsitatean**”, Iban Zaldúa idazleak dioenez. Izan ere, EHUK Leioan daukan kanpusean poesia-erakusketa ipini dute, baina ez da ohi bezalakoa. Lurrean ipini dituzte olerkiak, plaka batzuetan, eta batetik bestera eroango zaituzte letra solteek, horiek ere lurrean harlauzetan ipinitakoak. Horrenbestez, ez da edozelako erakusketa, denboran luze iraungo duen omenaldia olerkigintzari baino.

Xabi Paya, Kirmen Uribe, Maialen Lujanbio, Xabier Lizardi, Xalbador, Lauaxeta, Juan Mari Lekuona, Rosalia de Castro, Mario Benedetti, Gioconda Belli, Federico Garcia Lorca, Arthur Rimbaud eta Lord Byronen testuak ira-

kur daitezke, besteak beste, batzuk euskaraz, besteak ingelesez, katalanez, galizieraz, gaztelaniaz ala frantsesez:

“*Pasealekuak sei hizkuntzatan hitz egiten eta idazten duten 40 poetaren lan-zatiak biltzen ditu. Horrela, kanpusagaz geografia berezi bat egiten dute, hizkuntzek, ideiek eta sentimenduek elkarri eskua emoten dioten mapa literario bat, idazleek elkarren artean hitz egiten duten leku bat*”, Iñaki Goirizelaia errektorearen hitzetan; ez baita poema-sorta soila. Berbarako, hainbat hodik osatutako eskultura ere ipini dute: Xilofonoa. Albotik igaro bitartean ukituz gero, Joxan Artzeren *Txoria txori* poema entzuten da, Mikel Laboak abestuta. ○

JAIK JAI UDAGOIENA BITARTEAN, LOTU BARIK!

Sanjuanez inauguratu zuten udako jai-sasoia Leioan, ederto hasi ere. Baina horixe besterik ez dira izan: hasiera. Izan ere, egutegia bete festa datorkigu datozen hilotan. Berbarako, abuztu hasieran ospatuko dira Pinueta auzoko jaiak, hilaren 17an Santimamikoak eta amaieran San Bartolomekoak. Irail hasieran, barriz, Udondoko eta Ondizkoak izango dira, azken horretan Bakailao Lehiaketa ospetsua tarteko. Oporrak herrian igaro gura dituenak ez du planik faltan izango. Ondo pasa eta ez pasa!

BERDINTASUN ARLOKO TAILERRAK PREST

Berdintasun-tailerrak antolatu ditu Gizarte Zerbitzu sailak datorren ikasturterako ere, eta izena ematea dago abuztuaren 31 arte. Emakumeei eta gizonei zuzenduta daude, ohi legeez: emakumeak brikolaje, elektrizitate eta igeltserotzan arituko dira irailaren 19tik abenduaren 17ra; gizonek, barriz, etxea atontzen, lisatzen eta josten, eta sukaldaritza ikasiko dute. Tailer denak izango dira Leioa-Getxoko LHIK-n. Izena emoteko Gizarte Zerbitzura hurbildu behar da (Inaurratzaga, 1).

Info: www.leioa.net eta 944 801 336

UDAN LAPURRETAK SAIHESTEKO GIDA

Urtero legeez, oporrak bitartean etxean lapurretak saihesteko aholkuak batzen dituen gida kaleratu du Udalak, lapurreten %40 udan ematen direlako, hain zuzen ere, jabeak egun batzuetan etxetik kanpo egoten direnean. Besteak beste, gomendatzen da “*senide edo auzokoren bati posta jasotzeko eskatzea, baita noizbehinka etxeko leihoak irekitzeko ere, edota etxeko ate nagusiaren eta zoruaren artean tarterik ez dagoela ziurtatzea palanken erabilera saihesteko*”. Liburuxka osoa ikusgai dago www.leioa.net gunean.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA


BIZKAIA
irrátia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairrátia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Itziar Alegre, Ana Maria Zaldibar eta Gerardo Franco > Alzaga abesbatzako kideak

“Leku askotatik deitzen digute abesteko: ez gara profesionalak, baina koru oso bizia da gurea”

Alzaga abesbatza duela 15 urte sortu zen Erandioko Emakumeen Elkartearen baitan eta Gerardo Franco Aranaga zuzendari zuela. Gaur egun 33 emakumek abesten du eta hainbat kontzertu egingo dute urteurrena ospatzeko. Horietako lehena izan zen uztailaren 7an; Emakumeen Elkartea omendu zuten ekitaldian.

—Urteurrena dela-eta hainbat kontzertu egingo duzue, ezta?

—Lehenengo ekitaldia uztailaren 7an izan zen: kontzertua antolatu genuen Alzagako elizan. Ekainean Granollers-en egon ginen, bertako emakumeen abesbatzagaz. Trukea zen eta, beraz, uztailaren eurak etorri ziren Erandiora abestera. Aukera hori baliatuz, Zornotzako Xuxurlariak abesbatzari ere deitu genion; horrela, emakumeen hiru koruok abestu genuen. Era berean, Erandioko Emakumeen Elkarteari omenaldia egin genion kontzertuagaz, haren baitan sortu baikenuen abesbatza. Bestalde, azaroan ere egingo dugu kontzertua, Erandioko Banda eta Mendibaiarte abesbatzagaz batera, *Concert Celebration* izenagaz. Gabonetako ohiko kontzerturako ere zerbait berezia prestatu gura dugu.

—Asko aldatu da abesbatza sorreratik?



Itziar Alegre (presidentea), Gerardo Franco (zuzendaria) eta Ana Maria Zaldibar (diruzaina)

—Orduan 25 emakume hasi ginen eta 15ek jarraitzen dugu; guztira 33 gara. Aldaketa nabarmenena errepertorioari dagokio: gero eta abesti konplexuagoak egiten ditugu, ikasi ahala; 300 obra daukagu, estilo askotakoak. Arazoa da ez dagoela ordezkorik: gazteak ez dira integrazten abesbatzetan, behintzat profesionaletan ez bada. Kanean ere ikusten da: lehen txikiteoan beti abesten zen, orain galtzen ari da. Gure koruko adinaren media 60 urtekoa da: agian gure belau-

naldiagaz amaituko da musika korala.

—Truke asko egiten duzue beste herrialdeetako abesbatzakaz?

—Emakumeen abesbatza gitxi dago; beraz, asko deitzen digute eta toki askotan egon gara, baita atzerrian ere. Gainera, hainbat bidaia daukagu egiteke. Urtean pare bat egiten dugu, baina ez gara koru profesionala eta gure poltsikotik ordaindu behar dugu: beraz, zaila da toki guztietara joatea. Pare bat disko ere grabatu dugu: koru oso bizia da gurea. ○

Astrabudua jaietan!

Hamaika jai dator abuztuan: Astrabudukoak 7tik 12ra, gero Santimami eta Alzaga



Barikua izango da egun handia, abuztuaren 10a, San Lorentzo

Eta jaiakaz jarraitzen dugu. Abuztua ere bete-beteta dator: 7tik 12ra ospatuko dituzte Astrabudian, 17 eta 18an Santimamin, eta hilaren akabuan Alzagan.

San Lorentzo jaiak hilaren 7an abiatuko dira Astrabudian, baina txupina 8an jaurtiko dute, arrastiko 20:30ean. Segidan Larrain-dantza izango da Mendiguren plazan eta gauean kontzertuak egingo dituzte Urban, Salamandras eta DJ Mangasek. Egunero umeentzako jarduerak izango dira goizez Ignazio Aldekoan, eta dantzaldia Josu Murueta plazan gabaz. Bestalde, eguena 9an tortilla-txapelketa egingo dute goizean, eta

arrastian gymkhana. Gainera, 19:00etan kontzertua eskainiko du Ismael Vasallok Lurberri kalean, 21:30ean Bilbainadak abesteko dituzte Josu Muruetan eta 22:30ean kontzertua emongo dute Enkore, Estirpe eta Pedrá taldeek Mendiguren plazan. Hilaren 10ean Trikiziok eskainiko du erromeria.

Zapatuan, barriz, marmitako-txapelketa egingo dute, Tor magoa egongo da Josu Muruetan, eta kontzertua emongo dute Sin Rumba Fija, Huecco eta Laket taldeek Mendiguren plazan. Domekan amaituko dira jaiak paella-txapelketa eta Los Guasoneros-en kontzertuagaz. ○

ZINEMA KALEAN, AZKEN PELIKULA BIAK

Oraindino ez dakizu ala? Uztail osoan emon dituzte filmak kalean, udako gau epelak gozatuz. Lehenengo pelikulak galdu badituzu lasai egon, oraindino pare bat aukera daukazu-eta zinemaz gozatzeko. Uztailaren 27an eta abuztuaren 3an emongo dituzte azken pelikula biak: lehena izango da *Un dios salvaje*, Arriagako eskoletan. Bigarrena, barriz, *Criadas y señoras*, Astrabuduko Josu Murueta plazan. Emanaldiak 22:00etan hasiko dira eta sarrera doan izango da.

AISIALDIKO TERRAZAK UZTAILAREN 31 ARTE

Auzoko plazan mugimendua sumatuko zenuen uztail honetan. Izan ere, Aisialdiko Terrazak ekimena garatzen dabilta hiru plazatan: Alzagako Irailaren 23an, Astrabuduko Josu Muruetan eta Erandiogoikoako Euskadin. Bada, uztailaren 31 arte aukera daukazu parte hartzeko antolatu dituzte ekimen guztietan. Alzagan eta Astrabudian, egunero izango da zerbait: tailerrak, Ecojuga parkea, jolas tradizionalak, antzerkia, irakurzaletasuna pizteko tailerra eta jolas kooperatiboak. Erandiogoikoan, barriz, barikueta egiten dituzte ekitaldiak eta azkena izango da uztailaren 27an: ikuskizuna eskainiko dute Potxin eta Patxin pailazoek.

Info+: www.erandio.net

AZKEN JAIK IRAILEAN, ENEKURI ETA LUTXANAN

Gezurra badirudi ere urteko azken jaien barri ere emon behar dugu UK-ko zenbaki honetan, auzoetako festei dagokienez behintzat. Izan ere, irailan ospatuko dituzte auzoko jaiak Enekurin eta Lutxanan. Lehenengoan hilaren hasieran izango dira, 7tik 9ra bitartean. Bigarrenean, barriz, Lutxanan, irailako bigarren aste akabuan izango dira, 14, 15 eta 16an. Urtero legez, gozatzeko aukera soberan eskainiko dute auzo bietan, horrenbestez, irailan ere ondo pasa!

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA



www.ukaldizkaria.biz

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

UDAKO MUSIKA ZIKLOA, UZTAILAREN 27RA ARTE

Musika klasikoa gustuko dutenak zorionekoak izango dira uztail akabuan. Izan ere, Udako Musika Zikloa antolatu dute Kurtzio Kultur Etxean, uztailaren 23tik 27ra. Emanaldiak 20:00etan hasiko dira, eta sarrera deialde da. Egunik potoloena 26a izango da, Bilboko Orkestra eta Abesbatzako kideek kontzertu liriko eskainiko baitute.

ILARGIPEAN PELIKULAK IKUSTEKO AUKERA

Uztailean legez, kalean hainbat pelikula ikusteko aukera izango dugu abuztuan ere. Hilaren 4an, 11n eta 25ean izango dira proiektzioak, Larrabasterrako Urgitxieta plazan, 22:00etan. *Sherlock Holmes 2*, *'Mision Imposible 4 - Protocolo Fantasma'* eta *'Aita, zorbia naiz'* izango dira eskainiko dituzten filmak, hurrenez hurren. Gozatu!

LUDOTEKAKO IKASTURTE BARRIAN IZEN-EMOTEA

Irailetik aurrera zure umea ludotekara joatea gura duzu? Uztailaren 17an zabaldu zen ludotekan izena emoteko epea, eta abuztuaren 31n amaituko da. Ikasturtea, barriz, irailaren 17an hasi eta otsailaren 28an amaituko da, 20 euroren truke. Izena emoteko Kurtzio Kultur Etxera joan behar duzu, 11:00etatik 14:00etara.

LAGUNTZA GIDABAIMENA EUSKARAZ EGITEAGATIK

Sopelako Udalak diru-laguntzak emongo dizkie 17 eta 23 urte bitarteko gazte sopoloztarrei gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik. Baldintza nagusia azterketa euskaraz egin dela ziurtatzen duen trafikozuzendaritzaren agiria aurkeztea izango da. Eskariak aurkezteko epea abuztuaren 1ean hasiko da.

Munduko kulturen jaialdia 'Sopela Munduan' herrien arte-adierazpenen ospakizuna antolatu dute irailaren 14tik 16ra



Hostoak ikuskizuna irailaren 15ean helduko da Sopelara

Hainbat herritako musikak, doinuak eta arte adierazpenak elkartuko dira Sopelan irailaren 14tik 16ra. Asteburu horretan ospatuko da 'Sopela Munduan' jaialdia, eta udaletxe plazan musika, kantua, dantza eta mugimendua izango da nagusi.

Ekimen honen helburua munduko txokoetako kultura aberastasuna sopoloztarrei hurreratzea da, bestelako hizkuntza artistikoak sustatuz. Horretaz gain, bertako sorkuntzak ere toki garrantzitsua izango du jaialdian, Sopelatik munduan begirada jarritz eta

aldi berean Sopela munduan kokatuz.

Lehenengo egunean, irailaren 15ean hain zuzen ere, Finlandiatik heldutako Ketsurat taldea igoko da udaletxe plazako oholtzara. Sei emakume osatzen du taldea, eta euren ahots ederrak dira jaialdiaren protagonista. Hurrengo egunean, Hostoak ikuskizun ezaguna egongo da ikusgai Sopelan. Besteak beste, Oreka TX eta Kukai dantza-taldeak parte hartzen dute ikuskizun honetan. Azkenik, domekan Feten Feten talde dibertigarri eta barritzailea helduko da Sopelara, Gaztelatik. ○

Maykel Galloso > ASAAM Bizkaia elkarteko kidea

“Zoritxarrez, krisiaren eraginez, jabeek gero eta txakur gehiago uzten dute kalean”



Uztailaren 27an informazioa zabalduko dute udaletxe plazan

Txakur-adopzioak eta mikrotxipa ezartzea bultzatzeko asmoz, kanpaina abian jarri du Sopelako Udalak, herriko albaitaritzaklinika eta ASAAM elkartearen lankidetzagaz. Maykel Galloso sopoloztarra buru-belarri dabil kanpainaren antolakuntzan.

—**Zein da ASAAM elkartearen egitekoa?**

—ASAAM elkartea hainbat lagunek osatzen dugu, eta gure helburu nagusia kale gorrian dauden animaliei (txakur eta katuak) irtenbide etikoa bilatzea da. Animalia horiek albaitarienera erosten ditugu, eta pertsonak bilatzen ditugu behin-behinean animalia horien ardura har dezaten, adopzioa bilatzen den bitartean. Zoritxarrez, krisiaren eraginez, jabeek gero eta txakur gehiago uzten dituzte kalean.

—**Eta udan are gehiago oraindino...**

—Hala da, nahita kalean uzten dituztelako edo galtzen direlako, bidaien ondorioz.

—**Hori dela-eta, kanpaina abian jarri duzue Sopelako Udalgaz batera, ezta?**

—Hori da, Udalak mikrotxipa jartzeko kanpaina jarri du martxan. Izan ere, mikrotxiparen sistema barruan jabearen eta albaitariaren datuak agertzen dira, eta txakurra Estatuko edozein lekutan galduz gero, erraza da animalia jabea topatzea. Herriko albaitaritzaklinikek ere parte hartu dute, eta hiru egunetan informazioa zabalduko dugu Sopelako hiru gunetan.

«Txakurrak mikrotxipa baldin badu, erraza da jabea topatzea»

—**Eta zelan lagun dezake herritar batek?**

—ASAAMeko web orrian ikus daitekeen legez, bai ekonomikoki bai boluntario legez lan egin daiteke: kalean dauden txakurrei jabeak bilatuz, leku batetik bestera eroanez, paseatzera ateraz... eta noski, txakur bat etxean hartuz! ○

Info+: <http://www.asaam-vizcaya.org>

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
podologiaoinutsik@gmail.com



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



www.ukaldizkaria.biz

Orkatz Martin Egaña > Euskal selekzioaren eta Athletic-en atezain-entrenatzailea

“Denboraldia bikaina izan da, Ligan bigarren lotu eta Kopako finala galdu dugun arren”

Ekainaren 23an aurrenekoz euskal emakume futbolariak bat egin eta Euskal Herriaren koloreak jantzita Eslovakiagaz norgehiagoka jokatu zuten. Orkatz Martin izan da atezain-entrenatzailea.



Berangoztarrak urtebete daroa Athletic-eko atezainak entrenatzen

—Euskal Herriko selekzioaren atezain-entrenatzailea izan zara. Zelakoa izan da esperientzia?

—Esperientzia oso polita izan da, esperientzia barri bezala ikaragarria. Errealeko eta beste euskal talde batzuetako jokalaria-kaz harremana sendotu dugu. Izan ere, ligan, lehiakortasuna dela eta, ez dugu horretarako astirik izaten. Bai jokalaria-kaz bai entrenatzaileak eta fisioterapeutak oso jatorrak izan dira. Euskal Herria taldeak, ESAITek eta Kontseiluak kristoren ardura hartu dute partidua aurrera eroateko.

—Eta arrakastatsua izan da, ezta?

—Euren erronka Anoetan zortzi mila lagun batzea zen eta lortu zuten. Lehenengo aldia izateko, oso pozik!

—Gainera, zure atezainek ez zuten golik jaso!

—Hori da, gainera 1-0 irabazi genuen! 22 jokalarik osatutako talde orekatu bi eroan genituen, eta guretzat partidua saria izan da.

—Honetaz gain, Athletic-eko atezain-

entrenatzailea zara...

—Bai, aurten hasi naiz emakumeen taldean, Sestao Riverren mutilakaz egon ostean. Oso gustura nago, eta behintzat beste urtebete jarraituko dut.

—Denboraldia zelan joan zaizue?

—Bikaina izan da. Ligan bigarren lotu gara lehenengotik hiru puntura, eta Erreginaren Kopan finala galdu genuen luzapenaren ostean. Lehenengo urtea izateko nire aldetik ezin dut gehiago eskatu!

Mutilen taldeak legez, guk ere finala galdu dugu.

—Dena den, hau ez da zure ogibidea, ezta?

—Ez, ni irakaslea naiz, eta gauza biak eroateko zaila izaten da: arrastiko lauretan ikastolatik urten eta Lezaman sartzen naiz 20:30ak arte. Gainera, hamabostean behin bidaiak daude:artzelona, Madrilera e.a. Baina ez zait oso astuna egiten, taldeagaz gozaten dudalako. ○

Uribe Kostako talde agro-ekologikoa > gogoz bidean

“Elikadura-burujabetza zabaltzea dugu helburu”



Domeketan 19:30ak aldera Plaza Beltza kultur-gunean batzen dira

Joan uztailearen 21ean, Sopelan, orain hil batzuk eskualdean sortu den asanblada agro-ekologikoa aurkeztu zuten. Horretan, azoka, tailer eta giro parrebakoa eskaini zuten antolatzaileek, eta UK, gehiago jakitearren, taldeko kide diren Aitziber, Iker eta Haizeagaz batu da taldearen nondik norakoak azal diezazkiguten.

—Zeintzuk dira asanblada agro-ekologikoaren helburu nagusiak?

—Eskualdean elikadura-burujabetzaren aldeko indarrak metatzeko beharra ikusi genuen; azken finean, herriak berak nekazaritza iraunkorraren bidez jakiak ekoizteko eskubide bezala ulertzen dugu elikadura-burujabetza. Asanbladak hainbat proiektu dauka buruan: nekazarien arteko auzolana, salmenta zuzena eta azokak zabaltzea, jakiak transformatzeko kooperatibak sortzea, besteak beste, aurrera begira ditugun xedeak dira.

—Taldekide guztiak zarete ekoizle? Zer da batzen zaituztena?

—Elikadura-burujabetzak eta nekazaritza agro-ekologikoa batzen gaituzte. Gainera, ekoizle txiki eta handi ez ezik, kontsumitzaile edota ekoizle izateko

«Lur beharra aldarrikatzea izango da gure lan-ildo nagusia»

gogoia dugunak ere batzen gara.

—Aurrera begira zelan ikusten duzue mugimendu agro-ekologikoa?

—Gure asanblada urrats txikia da Uribe Kostan kontzientzia zabaltzeko. Halere, Euskal Herri mailan, aspaldi daude horrelako proiektuak.

—Hemendik aurrera, zein aldarri?

—Lur beharra aldarrikatzea gure lan-ildo nagusia da. Lur-erabilera salatu eta nekazaritza iraunkorrerako lurra aldarrikatzeko asmoa daukagu. ○

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI



Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA **VILLAR S.A.**

Harrizko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
- Lan osagarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

SANTIAGO JAIK UZTAILAREN 23TIK 29RA GORLIZEN

Hil akabuan, 23tik 29ra gorliztarrei euren jaiak gozatzeko beta helduko zaie. Horrela, hamaika ekimenegaz gozatzeko aukera izango dute bertakoek baita hurreratu direnek ere; kontzertuak, olinpiadak, bigantxak, bakailao-txapelketa, bertso-saioa zein dantzaldiak egongo dira-eta. Horrela, sanpedroak joan, eta orain Santiago jaiak helduko dira, ostean, Andra Mari jarraian heltzeko.

URDULIZKO GAZTELEKU- PROIEKTUA AURRERA

Orain dela hil batzuk, Urdulizko Udala gazteleku sortzeko harremanetan jarri zen herriko gazteakaz. Eta harreman horiek gaztelekuak izango duen eskaintza zabala zehaztu dute; gailu teknologiko gela bat, bigarren gela bat mahai-jokoetarako baita irakurtzeko ere. Hirugarren gela, barriz, talde-jolasetara bideratuta egongo ei da; eta azkenik, erabilera anitzeko gela egongo litzateke.

ARROPA MAKEATZEKO IKASTAROA

Urria eta azaroan arropa barritzeko ikastaroa eskainiko dute Plentzian. Horrela, interesa izanez gero, izena emateko aukera duzu irailaren 3tik 24ra Goñi Portalen.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Mankomunitatea

Irailaren bueltan, jaien azkeneko txinpartak: Plentzia eta Urduliz



Abuztu akabuan hasiko dira *sanantolinak* eta irailaren 3an amaitu

Abuztua igaro, eta hortxe, konturatu orduko iraila bueltan izango dugu; batzuk daborduko egunerokotasun estuan murgilduta egongo dira. Halere, udazken zein negu betilunean murgildu aurretik, irrietarako zein bizi-pozerako beta eta arrazoi edukiko dugu; horrela, Plentzian abuztuaren 30ean San Antolin jaiak hasi, eta irailaren 3ra arte hamaika ekimenegaz gozatzeko aukera izango dute plentziarrek, baita inguru-koek ere. Horrela, lehenengo egunean, umeentzako bitsa izango da, baita familientzako mozorro-lehiaketa ere. Abuztuaren 31n barriz, marmitako-lehiaketa, eta koadrilen arteko olinpiadak izango dituzte. Hirugarren egunean, irailaren 1ean, hain zuzen ere, eguerdiko 13:00ak aldera, triki-poteoa antolatu dute Plentziako kaleetan barrena. Ondoren, Sagardo-festa izango da arrastiko 17:00etan. San Antolin egunean, ordea,

eguerdiko 14:00ak aldera, betiko legez, koktel-txapelketa sonatua izango da Plentzian; ostean, erromeria eta suziriak ikusgai egongo dira. Azken egunean, ekimenak ekimen, koadrila-arteak sukaldaritza txapelketa ospatuko da. Baina, ez pentsa Plentziako sanantolinakaz,

«Urdulizen, uztailaren 21ean tortilla-txapelketa izango da Santa Marinan»

jai ei agur esango diegunik; Urdulizen ere, ondo pasatzeko abagunea izango baitugu. Hortaz, bertako jai-batzordeak irailaren 7tik 16ra hainbat ekimen antolatu du; horien artean, herri-kirolak, goitibehera jaitsiera, asto-lasterketa, dantzak ala mus-txapelketagaz gozatzeko aukera izango dute txiki, gazte zein helduek; ez, iraileko jaiak ere ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula izango gero! ○

Uzt. 23 - Ira. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Lucia Polancoren lanak.** Uztailaren 31 arte, 19:00etatik 21:00etara. Erakustaretoan.

PLENTZIA

► **Greziako margolanak.** Abuztuaren 3tik 14ra. Goñi Portalen.

GETXO

► **Jon Uriarteren Album seriea (GETXOPHOTO).** Irailaren 30 arte. Algortako Kultur Etxeko erakustaretoan.
► **O Zhang-en Daddy & I seriea (GETXOPHOTO).** Irailaren 30era arte. Algortako Torrene aretoan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Orsai.** Abuztuak 3, 19:00etan. Algortako Geltokia plazan. Doan.
► **Kli! Kla! Berzikla!** Abuztuak 31, 19:00etan. Algortako Aldapa plazan. Doan.

MUSIKA

ERANDIO

► **Folklore Jaialdia.** Uztailak 24, 19:30ean. Altzagako kiroldegian.

GORLIZ

► **Kasu! + Egurra ta kitto! + Yeray DJ.** Uztailak 24, 23:00etan. Eliz plazan.
► **Los chicos del maíz.** Uztailak 27, 23:00etan. Eliz plazan.
► **Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdia.** Uztailak 27, 22:30ean. Iberrebarrin.
► **Nazioarteko folk jaialdia.** Uztailak 28, 21:30ean. Iberrebarrin.



Info: www.eheguna.net

► Jaialdia

Euskal Herria Eguna Algortan, irailaren 15ean

Duela hilabete batzuk aurreratu bezala Algortan ospatuko da aurtengo Euskal Herria Eguna, irailaren 15ean. Laugarrenez egingo da jaialdia eta, aurretik, Ibarren eta Lizarran egin izan dute. Hain zuzen ere, hiru herrien arteko senidetzea da ospatuko dena eta aspaldi ekin zioten prestaketa-lanari Algortan. Goizeko 10:00etan egingo diete harrera Lizarra eta Ibarakoei Portu Zaharrea, eta elkarregaz egingo dute hamaiketako. Jarraian herrien arteko olinpiadak izango dira, eta 14:30ean, bazkaria, Zabala eskolan. Arrastian jokatuko dute olinpiada Final Handia Portu Zaharrea eta, horren ostean, dantzarako tarte izango da. Alaitzeko, poteoa egingo dute Elektrotunaren laguntzagaz.

• **Non:** Algortan • **Noiz:** Irailaren 15ean, egun osoan

GETXO

► **Biotz Alai abesbatza.** Abuztuak 10, 21:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. Doan.

PLENTZIA

► **La Retirada.** Abuztuak 16, 20:00etan. Elizan.
► **Sonar boskotea.** Irailak 6, 20:00etan. Elizan.
► **Rusiako Ballet Nazionala.** Abuztuak 24, 19:00etan. Jai Alai pilotalekuan.

ZINEMA

ERANDIO

► **Un dios salvaje (Zinema kalean).** Uztailak 27, 22:00etan. Arriagako eskoletan. Doan.
► **Criadas y señoras (Zinema kalean programaren barruan).** Abuztuak 3, 22:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Doan.

URDULIZ

► **Mision imposible.** Uztailak 31, 22:30ean. Kultur Etxearen atzeko plazan.

BESTEAK

ERANDIO

► **Aisialdi-terrazak.** Uztailaren 2tik aurrera. Irailaren 23a, Josu Murueta eta Euskadi plazetan.

BARRIKA

► **Urteera herrikoia Errioxara.** Uztailak 26, 09:00etan. Cantarranasetik.

GORLIZ

► **Eskulangintza-azoka.** Uztailak 28, 11:00etatik aurrera. Artzelu Plazan.
► **Nekazaritza-azoka.** Uztailak 29, 11:00etatik aurrera. Artzelu Plazan.

GETXO

► **Letren terrazak (udako liburutegiak).** Abuztuaren 31 arte. Gernika, Algortako Geltokia eta Aldapa plazetan.
► **San Lorenzo-azoka.** Abuztuak 10, goizeko 10:00etatik aurrera. Algortako Biotz Alai plazan eta Batzokiko patioan.

PLENTZIA

► **Hitzaldia: "Grezia, hain hurbil, hain urrun".** Abuztuak 3. Goñi Portalen.
► **Erdi Aroko azoka.** Abuztuaren 10etik 12ra. Alde Zaharrea.
► **Gazta-azoka.** Abuztuak 19. Eleiz plazan.

SOPELA

► **Aire-inauteria.** Irailak 8, 10:00etan. Hondartzetan.
► **Euskal Jaia.** Irailak 8 eta 9. Udaletxeko plazan.

LEIOA

► **Marmitako-txapelketa.** Abuztuak 26. San Bartolome auzoan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Itsasoaren astea

Getxo Sea Week ospatu zuten ekain akabuan Ereaga hondartzan eta Portu Zaharrean. Turismo bulegoak antolatutako ekimenean itsasoa maite dutenentzako ekimenak egin zituzten: jolasak, antzerkia, txakolin-dastaketa, kirol-jarduerak edota itsaski-dastaketa. Hainbat hitzaldi ere eskaini zuten eta hizlarien artean izan zen Pierre Yves Cousteau; Abra dragatzearen aurkako plataformakoak ere hartu zituen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Portu Zaharreko jaietan

antzarak harrapatzen

Laster datoz Algortako Portu Zaharreko jaiak eta, haiekaz batera, kukaña edota sokamuturra portuko hondartzan. Ez dira ohitura barriak, irudi hau ikusi besterik ez dago. Orduan antzarak ospatzen ziren (antzarak beharrezakua edo pilota ipintzen zen sokari lotuta): zeinek egin jasoaldi gehien pilotari helduta, uretan murgilduz eta handik ataraz, harek irabaziko zuen. Koadrilak jai-giroan erabat murgilduta joaten ziren antzaretara, begitu bestela gazte hauen mozorroei. Baina ez zen txantxetarako kontua: proba gogorra izaten zen. Aurten zenbat animatuko dira kukañako bandera lortzen saiatzera edota bigantxen aurrean ipintzera?

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Beste programa eta kateetatik eskaintzak izan baditu ere, *“isobaretara hain engantxatuta”* dago eta bere jardunak *“hainbeste asebetetzen”* du, pozik dagoela *Eguraldia* (ETB2) aurkezten Ana Urrutia (Bilbo, 1972), eta daborduko badaroa 13 urte. Nafarroako Unibertsitatean kazeritzan lizentziadunak ipurtarintzat dauka bere burua: kirolari amorratua, ezaguna da surfarekiko bere zaletasuna, pilates-irakasle ere bada; antzerkirako formakuntza egin du, film labur batean parte hartu du orain dela gitxi, bakarrizketa saioen bat, sare-sozialen inguruko ikastaroan dabil, publizitate enpresa dauka, Berdintasun gaietan konprometitua, alaba biren ama... Zazpi urte emon zituen Algortan bizitzen, duela bost Bakion bizi da.

Ana Urrutia

Isobaren menpe

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **EITB**

—*Eguraldia* aurkezteko gaien berezitatea den kazetari bihurtu behar izan duzu, zelakoak izan ziren hastapenak eta prozesua?

—*Casting*-a egin nuenean, garai hartan, emakumezko bila zebiltzan; ETBn hainbeste urtez “Eguraldiko gizona” izanik, ETB2rako emakumezkoa nahi zuten. Kazetaritzan lizentziaduna eta komunikatzaile soslaia izan behar zuen, baina hemen lan-taldean meteorologoa dagoenez, balioetsiko zutena “pantailan nola ematen zuen, kamera aurrean nola jokatzen duen” eta horrelakoak ziren. *Casting*-era aurkeztu nintzen eta... ondorioztatu zuten: “komunikatzailea da, neska gaztea, kirolaria, eta gainera surf-laria!”. Azken hori, niretzat, funtsezkoa izan zen, badakizu, surf-lariok beti itsasari begira, ekaitz; erauntsi edo afrontu sakona badator olatu oso onak edukiko ditugunez pozik, afrontuakaz beti pozik... Hau da, oinarritzko ezagutzaren bat banuen, haizearena e.a. Gero, egunero-egunero mapak, isobarak, ereduak, iturriak ikusiz, bada azken 13 urteotan

asko-asko ikasi dut; ez naiz meteorologo, baina momentu honetan ezagutza handitxo daukat...

—Ikasketa-prozesu horretatik zerk harritu zaitu gehien, edo zerk deitu du zure arreta?

—Polita da, beti zerbait barria ikasten zabiltzalako; ez da batere aspergarria. Niretzat eguraldia oso interesgarria da, eta gainera gure lurraldeak duen berezitasunagatik motibazioa handiagoa da; itsasoa eta mendiak ditugulako, eta horregatik

“Hemen, euria ez da beti eguraldi txarra, eta eguzkia ez da beti eguraldi ona; beharrak zer esaten duen!”

eguraldia aldakorragoa da. Beste lurralde batean, esaterako, ez itsasorik ezta mendirik ere ez badago, dena lautada bada, eguraldia egonkorragoa izan ohi da; eta polita izango da, baina, niretzat... “egunero bardina”... Eta hemen ez, hemen egunero ezberdina da, beti sorpresa daukagu, edo sorpresa baino aurreikuspenak alda daitezke, hainbat faktore daudenez,

temperatu alda daiteke, haizea badabil goizean hego-haizea izan daiteke eta arratsaldean iparraldekoa sartu, eta afrontua sar daiteke... Kantaurialdea da, Kantauri-atean gaude, leku oso erakaragarria da eguraldia aztertzeko eta eguraldiaren aurreikuspena emateko.

—Ostera, horrela izanda ere, kalean kritikak entzungo zenituen... Ez duzuelako “asmatzen” eta...

—Jendea, kalean, nigaz beti oso atsegina izaten da; batzuetan, agertzen da nor edo

nor erdi-haserre... *“Urrutia, zer gertatzen da ba!”* Imajina dezakezu: uda honetan, edota pasa den urteko uztailean, sasoi euritsua eta freskoa izan genuenean, jendea “erreta” zebilen... Eta “eguraldiaren aurpegia”-edo bazara, jendeak batzuetan bere ezinegona atera behar izaten du, beraz... Baina izaeraz oso lasaia naiz, eta pazientzia handia daukat; sena-



rrak eta familiak esaten didate “a zer pazientzia duzun jendeagaz, kalean!”. Neu oso mentalizatuta nago: nire lana da, gainera pantailan agertzen naiz eta egunero jende horren guztiaren egongeletaraino sartzen naiz... Orduan, hori ere nire lanaren parte da, okindegia edo bestelako denda bat izango banu bezala, horiek nire bezeroak dira, beraz, etxeok bezalakoak gara, ETBko aurpegiak ere bagara... Jende askok esan dit “zu etxeok zara”... Horrenbestez, atsegina, irribarrea ahoan eta horrelakoa naiz. Batzuetan badira lotsabakoak ere, baina beno lasaitzen eta gauzak azaltzen ahalegintzen naiz; jarrera onagaz, kalean azalpenak emoten... uste dudalako hori ere nire lana dela. Ondo daroat.

—Eguraldia-k, zuk aurkezle legez, beste-etatik bereizten duen ezaugarri bi ditu: bata, olatuen eta surferako informazio eskaintzen duela, eta bestea, ikusleen partehartzeari leihoa zabaldu diola argazkiak bidaltzeko guneagaz...

—Hasieran, surfaren informazioa ematea eta barriagoa zen, esaten zidaten “*sikieran, norbaitek berba egiten duela honetaz; zein ondo olatuen hau...*”, surfarien hizkera erabiltzea ere ondo dago... Baina, gaur egun ez dut uste surfaren kontuak hainbeste bereizten gaituenik, jendeak badaki surfaria naizela, baina ez besterik... Nire ustez hemen dugun abantaila-edo, gure lehiakideak diren beste kateek ez dutena, orain arte argazkiak eta bideoak izan badira, gaur egun TVE-k eta Antena3-ek ere badute, kopiatu egin digute, beraz hori dagoeneko ez da, beste hau da: alde batetik, gure lurraldeko informazioa ematen dugula, informazio zehatzagoa dela, bertoko herrietako datuak ematen ditugula, hau da, hurbiltasun eta gertutasun hori oso garrantzitsua da; gero, estiloa eta tonoa ere, nire ustez, oso garrantzitsuak dira, jendeak eguraldia eta iragarpena ezagutu gura dituelako, baina mezulariak ere badu garrantzia, eta aholku batzuk emotea, lelo-

keria badirudi ere, oso inportantea da. Imajina ezazu: “*Bihar, zeru urdina eta 25 gradu inguru*” esan, edo neuk esango nukeen legez, “*Bihar zerua garbi-garbi, 25 gradu, bero apur bat, beraz ura edan eta gogoan izan hidratatuta mantendu, (...) eta arratsaldean paseorako jertsetxoa ez*

“Herri-jakintza? Urteen joanean lur-zeruko atmosferaren behaketan oinarritzen da; dena kontuan hartu behar...”

ahaztu freskatuko duelako...” esatearen artean badago alde, lelokeria dela emoten badu ere, jendeak asko estimatzen du, eta horretan datza... Tonua, hurbilagoa, naturalagoa... Eta irribarrea ahoan eta adeitsua izatea, jendeak asko estimatzen ditu, hori esaten didate behintzat. Afrontua datorrela esaten dudanean, edo bihar-etzi eta etzidamu euria egingo duela, irribarrez kontatzen dut... Baina, zerbait ikasi badut zera da: hemen euria ez dela beti eguraldi txarra, eta eguzkia ez dela beti eguraldi ona; beharrak zer esaten duen! Hau da, agian lehorrea dugu eta eguraldi ona ez litzateke bero-egun gehiago, euria baino; edo uzta-garaian gaudela eta ona da euria egitea, edo kutsadura handia batu bada beharrezkoa da zaparrada bat, apur bat garbitzeko e.a. Eta hori ere jendeari transmititzen eta azaltzen jakin behar dugu. Nik uste lortu dudala.

“Gure ingurua zaindu behar dugulako kontzientzia lehen bazegoen, orain galdu dugu, atzera egin dugu”

Gainera, zaletasuna badago, eta jendeak gero eta gehiago ulertzen duela eta dakie-la esango nuke, kalean antzematen dut; orain hamar urte, “*zer, Ana, euria ala eguzkia?*” galdetzen zidaten, oster, gaur egun, “*zer, Ana, azkenean frontea dator ala atzeratu da?*”, “*Ana, zer dio isobara-ere-duak?*” e.a. Niretzat itzela da! Dibulgazioa

ere egon da...

—Konta egiguzu, lotzen den uda partearako zer eguraldi datorkigu?

—Badakizu epe luzerako aurreikuspenek ez dutela balio handiegirik. Aurreikuspen fidagarria lauzpabost egunerakoa baino ez da; joera modura 8-10 egunerakoa egin

daiteke, baina hortik aurrera ezer gitxi aurrera daiteke, oso zaila delako eta gainera gure lurraldearen berezitasunengatik are gehiago... Uztaileko lehenengo asteak freskoak izan dira, baina euritsuak ez! Kontrara, aurtengo uztaileko momentuz nahiko lehor doa, baina hodeitsu eta kostaldean batez ere freskotxu bai... Emoten du aldaketa badatorrela, egun eguzkitsua eta berotsuren bat izango dugula, udako tenperaturakaz... Eta abuztuan? Momentuz ez dakigu ezer, denetarik! Halere, gurean, Euskal Herriko udak nolakoak diren gitxi gorabehera badakigu: barnealdean eta hegoaldean eguzkitsua eta lehorrera, eta iparraldean eta mendi inguruetan normalean udan ipar-haizea sartzen da, udan gure haizea ipar-mendebaldekoa izaten da, beraz, bada hodeitsu, eta bai, euria ere bai. Horrela da...

—Eta tenporak? Sinesten diezu?

—Guk, beti, dena presente daukagu. Alde batetik, informazio zientifikoa, meteorologia, hainbat iturri, hainbat eredu, isobarak, britaniarra, amerikarra e.a. darabilzkigu. Bestetik, tenporak ere hor daude. Guretzat, oso garrantzitsua den kontua hau da: zerua hor dago, eta orde-nagailu batean bakarrik datuak ikusten

eta konparatzen ibiltzeaz gainera, beste alde hori ere bada: behaketa. Tenporak eta beste halako sinesmenak edo tradizioak zer dira? Zeruaren behaketa. Eta jende pilo dago hemen eguraldi-zalea dena, askok meteorologi-gunea du etxean, base-ritar asko animalien portaeran oinarrit-

herri-jakintza, zergatik ez? Azken finean, urteen joanean zure lurreko eta zeruko atmosferaren behaketan oinarritzen delako. Nire ustez, dena kontuan hartu behar dugu.

—Atzeko, gure lurraldeko, mapa aldatu behar izan zenuten; zelan daroazue hori?

“Uraren temperatura neguan ez da hainbeste jaisten; fenomenoak erradikalizatzen dabiltzala esan liteke”

zen da aldaketa datorrela jakiteko, eta egia izaten da... Gauza oso ezberdinak dira, baina niretzat denak dira baliozkoak;

—Ni eztabaidatik kanpo mantendu naiz; nire lana da eta profesionala naiz. Nire eguneroko lanean ez du batere eraginik

izan aldaketak; egia da, orain Logroño eta Errioxa erakusten ditugula, eta horko informazioa ere emoten dugula, edota Laredokoa... Lan gehiago, bai, orain Logroñoeko ekaitzetan arreta ipini behar dudalako eta lehen ez hainbeste. Baina, batzuetan, pentsatzen dut... Inora ez doazen kontuengatik borrokatu gura dutenek egin dezatela... Polemika bat mapa batean zentratzea ere... Azken finean, ondo pentsatuz gero, hori inora ez doanean... Gainera, nire ustez, bakoitzak berari interesatzen zaion lekuan ipiniko du begirada, eta hari gainontzekoak berdin dio... Nik kontu horiei ez diet hainbestelako garrantzirik emoten... ○

Klima-aldaketa

—Ozono geruzaren zuloa, poloen urtzea, eta abar luzeen, hau da, Klima-aldaketa nabaritu ahal da honezkero gurean?

—Errealitatea da. Gaur egun nork uka dezake klima-aldaketa?! Hori argi dago. Bestalde, adituen artean korronte ezberdinak daude klima-aldaketaren eraginei dagokionez, egin beharko litzatekeenari dagokionez eta proposatzen dituzten konponbideei begiratzuz gero. Hori bai, klima-aldaketa badela argi eta garbi dago, eta gizakiaren ekintza ama-lurra hondamendira eroaten eta akatzen dabilela ere bai. Eta txarrena: ez dago gure ingurua zaindu behar dugulako kontzientziarik. Pena da! Nire ustez, orain dela 10 urte-edo kalean kontzientzia hori bazegoen, edota etxe barruan ere, gure umeakaz... Agian, neure ikusteko modua da, baina esango nuke, hori galdu dugula, edo galtzen ari garela... atzera egin dugula zentzu horretan. Orain dela 8-10 urte kontzientzia handiagoa genuen, gai honen inguruan berbetan hasi zirenean, informazio-kanpaina gehiago zeuden... Eta orain?! Nire iritziz atzera egin dugu... Aurrekoan jendeagaz berbetan, eta “ez,

nik ez dut birziklatzen etxean...”, neu harrিতa!! Zer?! Atzerantz ibiliko bagina bezala ikusten dut; ez dakit bada, krisia dela-eta, jendea guztiz desmotibaturik dabilen eta danaz paso egiten duen, eta guztiz insolidario bihurtzen gabiltzan, “berdin dio, denak, beraz...”. Gure bizi-tzen inguruan hainbestelako ezkontasun-bola sortu dugu, ezen ingurumena zaindu beharrekiko giza-kontzientzia eta jendearentzat... Nire ustez, azkeneko bi urteotan, laugarren maila batean lotu dena. Pena da! Hori ikusteak mindu egiten nau, nire gaia delako, neu oso kontzientziatuta nagoelako; hondartzen kontuan ere, esaterako: itsasertza, zainduta eta garbi egotea, orografia, hondartzak eta hareatzak zaintzea, hori guztia niretzat oso garrantzitsua da... Eta udaz uda konturatzen naiz hondartzan jendeak duen jarrera txarrera doala... Atzera egin dugu! Jendeak zabor gehiago botatzen du hondartzan, itsasontziek gehiago kutsatzen dute... Eta gober-nuek, gainean dutenagaz... Azkenean, kontu hau azken maila batean uzten dute, eta honetan inbertitzeko? Puff, dagoeneko ez dago dirurik... Denok,

berriro ere, honi ekin beharko diogu! Bestalde, klima-aldaketak gurean eragirik izan duen ea sumatzen dugun galde-tu didazunean, zera... Ni ez naiz meteorologoa, baina nire esperientziatik esango dizut, badirela datu batzuk oso nabarmenak, adib.: itsasoko temperatura neguan aurtan, urtarril-otsailean, 11-12 gradu bitartekoa izan da, eta orain dela 10 urtekoa 9 gradukoa zen. Beraz, niretzat, surfaria naizen aldetik ere eta urte osoan hartzen ditudanez olatuak, uraren temperatura neguan ez da hainbeste jaisten; hau da, esperientzia pertsonaletik, urte osoan uretara sartzen den surfariaren aldetik, itsasoko uraren berotze hori nabaritzen da. Horrez gainera, zikloak daudela ere badakigu, gertaera are muturrekoagoak daudela? Agian, ere bai. Hondamen naturalak, uriolak eta halakoez aparte, horiek ziklikoak direlako eta aldika aldika errepikatzen direlako, muturreko egoerak izan daitezke areagotu direnak, hau da: hotz denean hotz-hotza, egundokoa, izaten da, edo beroa bada bero itzela... Zentzu horretan fenomenoak erradikalizatzen dabiltzala esan liteke.




Soka tenkatzen jarrai

Urteak, hamarkadak daramatzate goierrikoek sokari gogor helduz, indarra eginez. Eta urteetan (ezinezkoa dirudien arren) ez dira nekatu; horregatik, gogoz, ilusioz eta indarrez darraite. Erandioztarren irmotasunaren azken emaitza izan da ekainaren 23an, Leioan irabazi zuten lur-gaineko 640 kiloko Euskadiko Sokatira Txapelketa. Horrela, atzoko argazki hauek ikusi, eta garaiak aldatu direla erraz aditzen dugu; halere, bada atzo eta gaur irauten duenik: soka tenkatzen segitzeko indarra.

Argazkiak: **Goierri Sokatira Taldea**







Futbola > emakumeak puntan dabilta, bai Uribe Kostan, bai Bizkaian

Emakumeek fin jotzen dute baloia: garaipenak eta maila, puntaren puntan

Bizkaiko futbol-talde nagusiak herritarrak zoratu ditu, baina ez dira emaitza onak izan dituzten bakarrak: Emakumeen taldea goi-goian dabil aspaldi. Arrakastak kirola suspertu du neska gazteen artean eta gorakada nabarmena izan du. Uribe Kostan badaude taldeak, eta badago maila.



ARGAZKIA: Euskal Herria Kirola

Futbol-sukarrak bazter oro berotu du aurten Bizkaian. Herriaren “droga” izen-datu da askotan, baina oraingoan muga guztiak hautsi ditu futbolak, Bilboko Athletic-en emaitza onak direla-eta. Emaitza onak, bai, baina norenak? Izan ere, bai gizonen, bai emakumeen lehen taldeak puntan ibili dira denboraldi osoan. Gizonen taldea bigarren lotu da txapelketa garrantzitsu bitan; baina emakumeak ere bigarren lotu dira beste txapelketa bitan. Bazenekien hori?

pelketa bitan. Bazenekien hori?

Futbola gustuko izan edo ez guztiek izan dute gizonen emaitzen barri, ez oster, emakumeen barri. Horrek ez

du esan gura mailarik ez dagoenik. Kontrara, emakumeak goi-goian dabilta aspaldi eta emaitza onak nabarmen

Uribe Kostan 23 futbol-talde inguru dago, 5 mailatan banatuta

bultzatu dute kirola neska gazteen artean. Uribe Kosta da horren lekuko: Eran-diotik eta Plentziara, herri askotan daude emakumeen futbol-taldeak:

Erandion Betiko Neskak kirol elkar-teak hiru talde dauka: alebin mailan bat, kadetetan bat eta nagusietan beste bat; Betiko Emakumeak elkar-teak, barriz, talde bi dauka, bata benjaminetan eta bestea infantiletan. Eskaera dagoenez, gainera, datorren ikasturterako bigarren



Euskal selekzioa. ARGAZKIA: Euskal Herria Kirola

taldea sortzekotan dabilta infantiletan.

Uribe Kostatik Euskal Herrira

Leioan ere badago zaletasuna: batetik, Maia areto-futboleko taldea dago; bestetik, Leioako Emakumeak elkar-tea. Horren baitan dabilta sei talde: maila bakoitzeko bat eta kadetetan bi. Getxon

Bizkerrek dauka sei talde: alebinetan bat, infantiletan bi, kadetetan bi eta nagusietan bat.

Berangon eta Sopelan, barriz, talde bana daukate nagusietan: Berango Futbol Taldea eta Ugeraga. Plentzian, azkenik, hiru talde dago: infantiletan bat eta kadetetan bi. Gainontzeko herrietan ez

dago talderik eta ingurukoetara joan behar dute bertako neskek. Baina badago eskaera eta, antza, maila ona.

Bestalde, maila nagusian dabilta jokalaria ere badaude gurean: berbarako, Bilboko Athletic-en dabilta Aitziber Juaristi *Tzibi*, Naiara Beristain eta Andere Legina getxoizarrak. Eta maila altua Euskal Herri osora zabal daiteke; izan ere, ekainean Eslovakia garaitu zuen Euskal Herriko selekzioak bere “*lehen partida ofizialean*”, Euskal Herria Kirola elkarte

Euskal Herriko selekzioak Eslovakia garaitu zuen ekainean Anoeta zelaian

antolatzaileak azaldu bezala; Eslovakia, gainera, nazioartean lehiatzen dabil. Beraz, emakumeen futbolaren eta selekzioaren aldarrikapenak bat egin zuten Donostiako Anoetan, eta, hemendik aurrera, partida gehiago jokatzeko asmoa daukate. Emaitza onak pizten dute zaletasuna, eta hark biderkatzen du jokatzeko nahia. Era berean, jokalaria gehiago eta prestakuntza zehatzagaz, mailak hobera egingo du. Iraultza baten ataria ete? ○

Aitziber Juaristi Tzibi > Athletic taldeko jokalaria

“Gu hasi ginenean *boom* antzekoa gertatu zen eta neska asko animatu zen futbolean jokatzera”

—Espainiako Ligan eta Kopan bigarren lotu zarete zuek ere, baina ez da asko entzun; zelan bizi duzue?

—Nire ustez bietan merezi genuen postu hobea, baina Ligan Bartzelona oso ondo ibili da. Kopan irabazi genion, baina azken partidari zorte txarra izan genuen. Dena den, ezin dira konparatu gizonen eta emakumeen futbola. Kirol bera da, baina inguruan mugitzen dena ez. Eurek ere meritu handia daukate,

batez ere UEFA: txapelketa oso ona egin zuten. Gureari dagokionez, urte oso polita eta garrantzitsua izan da: asko ikasi dugu eta konpromiso handia izan da guztion partetik, birbiltzeko irabaztea besterik ez zen falta. Baina oso harro nago nire taldeaz: maila handia erakutsi du, bai jokoan, bai konpromiso aldetik. —Zelan dago emakumeen futbolaren osasuna Uribe Kostan?

—Gero eta talde gehiago dago: haurrak,

hasi barriak, zazpiko futbola, eskualdekoa... badaude taldeak. Gu hasi ginenean *boom* antzekoa gertatu zen, arrakasta izan zuen emakumeen futbola eta neska asko animatu zen jokatzera. Lehen, agian apur bat txarto ikusten zen neskak futboleko aritza, baina *boom* horren ostean, pentsamoldea aldatu da eta nabari da neska gehiago dagoela. Uribe Kostan talde asko dago eta badaugu maila altua. Txikitatik lantzen badu-

gu, maila oso onera iritsiko dira.

—Euskal Herriko selekzioa jokatzera hasi da, zelan ikusten duzu?

—Orain urte batzuk partida bat jokatu genuen Argentinan, baina gero gelditu zen. Ea oraingoan mantentzen den. Partida politak dira eta emakumeen aldarrikapena ere hor dago.

—Entrenatzaileen artean gizonak nagusi, noizko emakume entrenatzaileak?

—Gero eta gehiago dago, batez ere umeak. Nik neuk entrenatzaile agiria atera dut, baina momentuz nahiago dut txikien formazioan aritu: Athletic-en iaz abiatu genuen neskei zuzendutako entrenamendu zehatza, euren beharrei egokitutakoa. Zenbat eta neska gehiagok jokatu, orduan

eta emakume entrenatzaile gehiago egongo da.

—Eta herrietan, sustatzen hasi da emakumeen futbola?

—Animatuko nituzke Udalak emakumeen futbola sustatzera eta taldeak sortzera. Azken batean, kirola da eta kontua da aukera berberak emotea neskei eta mutilei, bai futbolean, bai gainontzeko kirolatan. Esan ohi da mutilen futbola oihartzun handiagoa duela, baina gainontzeko kirolak ez dira sustatzen futbola beste. Horregatik animatuko nituzke Udalak kirola sustatzera, eta neskak parte hartzera. Kontua ez da onena izatea, baizik eta ondo pasatzea: bizitzarako onak diren gauza asko ikasten dira kirolean. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Basartena lehiaketa

Uztailaren 28an egingo da sari-banaketa ekitaldia **Urdulizko** kultur etxean



Lehiaketan parte hartu duen filmetako baten fotograma

Ohi legez, Urdulizko kultur etxe kanpoaldean egingo da Basartena Film Laburren Lehiaketako sari-banaketa ekitaldia, hilaren 28an, 22:00etan hasita. Koldo Serra, Borja Crespo, Aitor Elorriaga zinegileek eta Amaia Nerekan eta Patxi Urkijo EHUko irakasleek osatutako epaimahaiak aukeratutako filmik onenen saridunak nortzuk diren ezagutzeaz gainera, lehiaketako 12 film ikusteko aukera egongo da. Horren albotik, aurton lehenengoz, lehiaketaz kanpoko lan bi ere eskainiko dituzte, bata Aitor Elorriaga sopoloztarrak egindakoa eta, bestea, 3D formatuan EAEn egindako lehenengo filma, Mikel Clemente algortarrak egindako *Kotoizko maitaleak*, hain zuzen ere. Amaitzeko, film-ikustaldiaren ostean sardina-jana eskainiko dute.

Lehiaketako arduradun nagusi Patxi Lazkano Basartek azaldu digunez, aurten 236 film labur jaso dituzte lehiaketan, "aurteko urteetan jasotako antzeko

kopurua", ostera aurton, euskarazko film labur askoz gixiango heldu zaizkie, 7 bat inguru, eta Zinema Eskoletatik bidali-

«Aukeratutako 12 film laburrez gain, Aitor Elorriagaren bat eta Mikel Clementeren 3D-koa eskainiko dituzte»

takoan kopuruak ere nabarmen egin du behera. Aitzitik, "kalitate aldetik nabiko onak dira, eta animazio atalean 17 bat jaso ditugu, kopuru nabiko polita; bada bat euskarazko animaziozkoa, zein atalean sartu erabakitzeke zailtasunak emon dizkiguna, ona delako...", jakinarazi digu Lazkanok.

Horrez gainera, lehiaketak murrizketak izan dituela esan digu, nahiz eta Udaletik "laguntza tekniko handiagoa" emon dieten; izan ere, "jasotako lanetan legez, aurton nabarmena da umorezkoak gixiango direla, barre gixiko garaia bizi ditugu!", dio Basartenakoak. ○

Info+: www.basartena.com

Getxo Folk, irailak 5-9

Elkartasun-Gunea, Munduko Merkatua, informazio-gunea eta **munduko musikak**



Irudian, Cheikh Lô. Gainera, Mustapha Agharbanek perkusio-tailerra eskainiko du (hilak 8,12:30)

Getxoko XXVIII. Nazioarteko Folk Jaialdiko saio nagusiei (Areetako Geltokia plazako karpia, 21:00; eguneko sarrera 10 €, abonua 35 €) hasiera Mikel Urdangarin euskal kantautoreak eta Cristina Pato gaitajotzaile galiziarrek emongo diete irailaren 6an. Biharamunean, Kila talde irlandarraren nahasketa doinuakaz gozatu ahalko da. Zapatuan, irailak 8, Cheikh Lô senegaldarraren txanda izango da. Amaitzeko, hilak 9 domekan, Xabier Leteri gorazarre egiten dion *Sortuko dira besteak* saio berezia egongo da, Urdangarin, Pier Paul Berzaitz, Petti, Arantxa Irazusta, Eñaut Elorrieta, Alex Sar-

dui eta Amets Arzallusen parte hartzeagaz. Eguneroko egitaraua arrastiko kontzertuak hasiko da (Geltokia plazako aparkalekuan; 19:00) eta hor jardungo dute, adib.: Aba Taano senegaldarrek (irailak 5), Ganbarak-ek (hilak 6), Aragoiko Olga y los Ministriles-ek (irailak 7) eta Gaztela-Leongo Mayalde-k (irailak 8). Eguna amaitzeko, Getxoko Etorkinen Plataformak eta Euskadiko Munduko Medikiak prestatutako Munduko Terrazan (aparkalekuan, 23:00) hainbat jatorritako gastronomiaz gozatzeko gain, talde bik girotuko dituzte gauak, Street Wings-ek eta Maui y Los Sirénidos-ek. ○

diskoak

Glaukoma
Glaukoma Sound System
Bonberenean Ekintzak




Tolosan batzen hasi ziren Gipuzkoako hainbat herritako musikariek osatzen dute taldea. Jamaikatik ekarritako doinu eta erritmoen inguruan dabil bueltaka. Diotenez, "erregina da reggaea eta rapa errege". Oholitza gainean 2 urtez ibili ostean, rap-reggae doinuak dira nagusi 7 kantuk osatzen duen KD/LP formatuan plazaratu barri duten lehenengo diskoan.

Roni
Roni
Autoekoizpena



Estilo nahasketa, uztarketa, Negu Gorriak-en sustraiak -rock, rap, reggae- eta folkez jantzita dira orain urte gixi Baionan jaiotako Roni taldeak dakartzigun osagaiak. Lehen disko ofiziala euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta gaskoineraz abestuz argitaratu dute. "Amodio eta borroka kantak, esperantza eta haserre kantak" dira.

Double Dragon
Meido
Hainbaten artean



Urte bi pasa dira Bilboko noise-rock hirikoteak azken lana kaleratu zuenetik, eta orain LP eta CD formatuan argitaratu dute *Double Dragon* lan barria. 300 aleko edizio mugatua egin dute eta lana osatzen duten 7 kantuk zuzenean grabatutakoak dira. Radix Records, Nooirax Producciones eta Odio Sonoro zigiluen laguntzagaz argitaratu dute diskoa.

bide barria > Drogas

Enrique Villareal *Drogas*-ek ibilaldi barriari ekingo dio laster. Txarrena taldea abiatu zuen orain ez asko, eta Txantreako betiko taldetik ofizialki banatu ostean, aurrerantzean El Drogas-ek "bere bizitzako egitasmoa" martxan ipiniko du. Txarrena baztertuko duen egitasmoa bada ere, bertako taldekide Brigi Duque, Txus Maravi eta Eugenio Aristu *Flako* izango ditu lagun ibilaldi barriari. 35 urteotan sortutako abestieta-tik aukeratutako 40k osatzen duten 3 orduko zuzenekoak eskainiko ditu "Te cantamos las 40" biran, eta datorren urterako disko barria grabatzea iragarri du. Biraren barruan, azaroaren 30ean (21:30) Bilboko Kafe Antzokian joko du.

Info+: www.eldrogas.com

filma > Zuloak

Arrate Rodriguezek abiatutako proiektua da *Zuloak* filma. Emakumeek osatutako taldea sortu, taldekideak hautatu, musika estiloa zehaztu eta alde estetikoak zaintzeaz gainera, prozesu hori guztia kameragaz grabatzea zen bere asmoa. Ostera, Rodriguezek "esperimentua" erdibidean utzi behar izan zuen, baina filmatutako materiala Fermin Muguruzari bidali zion. Horrek amaitu du sortutako Zuloak taldearen gaineko filma, Arrate Rodriguez, Izaskun Muruaga, Ainhoa Unzueta, Naiara Goikoetxea eta Tania de Sousa partaide dituen eta urriaren 5ean zinetan emongo dena. Trailerra ikusgai dago hurrengo helbidean:

www.youtube.com/watch?v=gU41isyIWek

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eskal Herria kalegea bar)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41
Algorta

[literatura]

Lauaxeta, 75. urteurrenean

Laukizko idazlearen **obrak eta** hura gogoan idatzitakoak irakurtzeko gonbidapena...

Orain dela 100dik gora urte, agorrilaren 3 batez jaio zen Estepan Urkiaga *Lauaxeta* Laukizen; familiaren baserriaren izena hartu zuen goitzen. Eta oraintsu bete dira 75 urte, 1937ko ekainaren 25ean egun-sentiko 05:39an fusilatu zutenetik Gasteizko Santa Isabel hilerrian. Han eta hemen, berari gorazarrez, ekitaldi andana antolatu dituzte euskal literaturazaleek, berbarako: Literaturian, gainera ordutik gordetako *Lauaxeta*-ren gabardina ere presente egon zen, zein hainbat abeslarik sortutako *Ehungarrenean hamaika* ikuski-zuna eta diskoa, zein haren betaurrekoak ikur bihurtu zituztenekoa e.a.

Hala, Armiarma atarian bere obra garrantzitsuenak irakurtzeko gonbidapena egin dute, eta uda sasoi ez dateke garai

«Sarean, eta e-book euskarrirako doan lanik garrantzitsuenak»

txarra, beraz, UK-k ere gonbidapena luzatu gura dizu: *Bide barriak* (1931), *Arrats beran* (1935), poema solteak (1925-1937), poema itzuliak (1927-1931), Poesia kaiera, ipuin eta artikulua bilduma eta antzezlanak sarean daude irakurgai; *e-book*-erako ere doan lor daitezke. Horrez gainera, ez dira gitxi euskal idazleek *Lau-*



Info+: klasikoak.armiarma.com

axeta gogoan eta haren uretatik edanda idatzitako lanak (Armiarman irakurgai), besteak beste: *Gorputz dago gudaria* (S. Mitxelena, 1939), *In Memoriam* eta *Ekainaren 26 egun* (Aresti; 1967, 1970), *Lauaxeta gogoan* (Atxaga, 1976), *Lauaxeta paredoian* (I. Sarasola, 1980), *Orain dela* (X. Montoia, 1983), *Lied* (Omar Nabarro, 1986), *Luma beltz-horidun tukana* eta *Muxuka nazak* (I. Aranbarri, 1987), *Lauaxetaren betaurrekoak* (K. Izagirre, 1989), *Olerkaria* (Sarrionandia, 1995), *Lauaxeta* berpizten duen *Agur, Euzkadi* (J. L. Zabala, 2000), *Poesia Auschwitz eta Gernikan* (I. Aiestaran, 2003) e.a. ○

liburuak



Piraten Olinpiadak...
M. Murua eta J. Tokero
Elkar

Mitxel Murua letraz eta Julien Tokero marrazkiz osatu duten *Piraten Olinpiadak Txirla-beltzaren uhartean* lanak kontatzen duenez, Patakon kapitaina eta bere tripulazioa mundu osoko piratakaz batera joekotan parte hartzeko alkartu dira; baina, Patxijaik ez ei du lehiatu gura...



Biktimari agurka
Fito Rodriguez
Utrisque Vasconiae

«Twitter perfektuak» legez definitu ditu Antonio Casado da Rocha EHUko irakasleak Fito Rodriguez idazlearen aforismo liburu honetako testuak. Testu laburrak dira, baina pentsamendu sakonak batu ohi dituzte, askotan hausnarketa biziak eragiten dituztenak...

[kirola]

Gazteenak olatuz olatu

Billabong Sopelana Pro Junior VI. lehiaketa uztailaren 26tik 29ra Atxabiribil hondartzan



Surflari euskaldunek aurre egin beharko diete beste herrialdeetako lehiakideei

Udagaz batera, eguraldi ona-edo, hondartza, itsasoa...; horiek guztiek bat egin, eta gurean garrantzitsua eta ezaguna den kirola datorkigu burura: surfa. Bizkaiko golkoan sortzen diren olatu indartsuak ezinbestekoak dira taula gainean surflari gazteenek olatuen erritmora dantza deza-ten Billabong Sopelana Pro Junior VI. lehiaketan. Horrela, uztailaren 26 eta 29 bitartean Atxabiribil hondartzan zirkuitu europarraren hirugarren proba osatuko dute mutilek; neskena, barriz, laugarren proba izango da Atxabiribilekoa. Sopelan ospatzen diren beste surf-lehiaketetan bezala, honetan ere, Peñatxuri Surf Elkarte eta Sopelako Udala dira antolatzaileak, Billabong babesle nagusi dutela.

Proba erabakigarria izango da honakoa bai neska zein mutilentzat; hori dela eta, ziur, gazteek dena emango dutela norgehiagokan irabazte suertatzeko. Surflari euskaldunen artean nesken kategorian Letizia eta Loiola Canales ahizpa sopoloztar-rrak zein Garazi Sanchez getxoztarra lehi- an ibiliko dira beste lehiakide danak atze-

an uzteko asmoagaz; hala, neskek Maud Lecar zein Johanne Defay frantziarrakaz lehiatu beharko dute. Mutilen artean, ordea, Natxo Gonzalez, Borja Agote, Alex Gironi, Ander Mendiguren, Txaber Gaminde eta Kosme Fernandezek gogor ekingo diote iazko lehiaketako irabazlea, Ian Fontaine, baita gainerako surflari gaz-

«Guztira 150 surflari batuko dira uztailaren 26tik 29ra ospatuko den lehiaketan»

teek ere, William Aliotti eta Tom Cloarec, besteak beste, gaintzeko. Horrenbetez, ikuskizuna ziurtatuta dute zaleek; izan ere, guztira 21 urtetik beheragoko 150 gazte taula eskuan, gogotsu batuko dira aurreko urteetan bezalaxe Atxabiribil hondartzan bertan. Horrenbetez, surfzalea izanez gero, uztail akabura arte itxaron beharko duzu gurean surf-lehiaketa-gaz gozatu ahal izateko; oraingoan, gainera, gazteenak izango ditugu protagonista nagusiak. Hartu olatu eta, badakizu, surfagaz gozatzera! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Alvaro Gurrea Saavedra > idazlea

“Gakoa ez da zer kontatu, zelan baino; horretan datza idazlearen sormena”

Jaiotzez donostiarra da Alvaro Gurrea Saavedra, baina aspaldi bizi da Uribe Kostan. Zuzenbidean eta Enpresaritzan lizentziaduna, eta Komunikazioan doktore da; gainera, publizitaria eta EHUKo irakasle izandakoa. Gai horregaz lotutako liburuak idatzi zituen, baina erretiroa hartutakoan garatu zuen idazteko zaletasuna. Liburu bi argitaratu ditu: *Agur al Viejo Bilbao* eta *Kosallu*; azken hori iragan martxoan.

—Publizitaria izandakoa, liburuak zelan saldu jakingo duzu?


—Ez, adin honeguz liburuak idazten hasten banaiz ondo pasatzeko da eta gainera, promozioan ere ondo pasatzen badut, askoz hobeto. Bihar Eara noa, *Kosallu* bertako istorio batean oinarrituta dago-eta; herritarrek egongo gara eta dibertigarria izango da. Dirurik ez dut irabaziko, baina bai ondo pasatu.

—Beste liburu bat idatzi zenuen iaz: *Agur al Viejo Bilbao*, zure bizitzako une batean oinarrituta?

—Bilbotar donostiar legez definitu nuen nire burua liburuan. Bilboko urte onak ditu hizpide, Bilbora 17 urtegeaz ikastera etorri eta 80ko urteak arte. Orain beste liburu bat prestatzen ari naiz, Donostian bizi nintzeneko garaikoa, gazte garaikoa.

—*Kosallu*, barriz, istorio batean oinarrituta dago, ezta?

—Nik gertakari batetik abiatuta osatu dut nobela. Nobela da, baina ez da historikoa; ez nago ados benetako gertakarietan oinarritzen diren nobelakaz, berdin dit gertakariak berak: hau da, kontua da istorioa zelan kontatzen duten, eta ez zer kontatzen duten; horretan datza idazleen



Kosallu nobela kaleratu zuen Gurreak martxoan

sormena: idazle on bati emongo nioke gidoilari baten eskema, gero berak kontatzen. Hor baitago gakoa. Pelikula bat, nahiz eta oinarrituta egon benetako gertakarietan, gidoia da meritua, zelan egin da eta kontatuta dagoen. Gertakariak ondo daude zerbait idaztera bultzatzeko, hortik aurrera martxan jarri eta idazten

“Istorio bati gertakariak gehitu dizkiot, hilketa eta horrelakoak, kontatzeko dibertigarriagoa da-eta bekatua bertutea baino”

hasteko. Gertakari batzuk berez izan daitezke barregarriak, baina beste batzuk ez; horrenbestez, arazoa ez da zer kontatu, baizik eta zelan kontatu, zer graziagaz egiten duzun, gertakaria benetakoa izan edo ez. *Kosallu*ren kasuan, Eako pertsonaia baten istorioa kontatu zidaten, *Kosallu* izenekoa. Izen eta datu batzue-

tan zalantzak zituzten, baina horrek bardin dio. Kontua da erretratatzeko garai jakin bateko giroa: herri txikien fobia atzeritarrei, kristautasunaren itxieria... Nik bestelako pasarteak gehitu dizkiot, hilketa bat eta horrelakoak, kontatzeko dibertigarriagoa da-eta bekatua bertutea baino.

—Eta ondo pasatzeko idazten duzu?

—Bai, jendeari gustatu edo ez beste kontu bat da. Publizitatean ere dirurik ez nuen egin, baina anaiak zioenez, zelan irabaziko nuen gustuko banuen? Oraindino ez dakit gai naizen istorioak kontatzeko; beste liburu bat ateratzea lortzen badut eta ondo badoa, agian bai. ○

Fredi Paia

Akabuko patate

Budistek esaten ei deude hil eurreko momentu dala garrantzirik handieneko bizitze duztin. Ordun, agonin gaizela, kodainedun enbre etorten ikusten duren, bele baltzak kaskire parajetu orduko, bigarren arimek urtetan ei dotse personari. Edaten daunen kariñoso bihurtuten daun bigarren arime, hatan bere.

Gure ingerun bere hori sineste zabal ibili da, sarri entzuten ixen dot. Bizitze duztin ondasunek batuten emon osten damu agertuten ei dako jenteri. Ibilkere duztiz arteza okiten gatxa da, martxan gabiltzezen bitarten lebarik ez badeko bere. Ostantzen, lotuezinak apatxe iten daunen eurretiko beginzinok etorten dakuz. Ta eurakaz batera, egonezine.

Edadekon arten famoso da *Pitxon* ezuzeneko algortar bat. Atxinerik hil zen, baie Txirrita bertsoaren modun, bere esatek ondinarren aitu litez haxe igerrak jotan daun okolluten. Txiki-Otaegi deretxodan plaza ondoko etxen bizi zan. Sasoi beten itxoson ibil zala dineude betzuk, bizimodu eurrera etxek iten atara iaule dineude garestikok. Kontu da ze Algortan lurre nahie batun iaule. Lurjaube handi ixen zan.

Ostera, hareri bere ailega dakon kodainedun enbren bisiteri itxedoteko sasoi, aiez. Arregatuten hasi zen eta era batera nahi bestera metatu iaizen ondasunek bananduteko aro ailega zala begindu dakon. Esalege da: “Batzilen osten dator zabaltzile”. Belaunaldi batek pilotu ta hurrengok zatitu.

Halanda ze, urte haitan Algortan egon notario bakarrangana jon eta bere testamentu in iaun. Lege zaharra ondasun duztik etxeko zaharrenari, oinertekorri emote ixeten zan, berak goberna



“Atxinerik hil zen, (...) bere esatek ondinarren aitu litez haxe igerrak jotan daun okolluten”

eixan “sensasari” edo errentak.

Gure Pitxon, aurki, osadio barrin zale zan. Ondasunek bananduteko lege zaharra ahiztu eta berak gure ixen iaun lez iaizen partizininok.

«Pitxon-en lande, ostera, ortuz beterik dau oin bere»

Haxe igerrak ez deko testamentu duztin zidorrik. Baie ondo akordun deko antxine Aranalde eta geur Hezetasuna deretxon auzoko landa handi baten ganen zer eskribidu iaun *Pitxon*-ek: “*Sean esas tierras para la labranza, pues sinó, llegará un momento donde no habrá en Algorta lugar*

alguno donde se pueda plantar una patata”.

Gizon jakintsu eta zuhurre ixen ei zan *Pitxon*. XX. gizaldiko lehen erdin hil zan. Ordun Algortan etxe gutxi egozan, gehienak solo, ortu eta zitzoskik zien. Halanda bere, bere berbatan asma lei etorkizune iragarteko abildade handi okin iaule. Ixen bere, geur herri duzti zementuz beterik dau, ingeruko herriten pasten dabilen modu bardinen.

Pitxon-en lande, ostera, ortuz beterik dau oin bere. Algortako *Ciudad de Deus* txikerra da, eta hamaka txabolatxuk euren leku koxi deude zementun erdin. Akabuko patatak bertan ereiten direz, oin ahun urte ingeru esan oskuen modun. Hametik eurrera zer paseko dan, ostera, *Pitxon*-ek bere ez daki. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina triangeluetan
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
Pello asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Patata-xafla pateagaz

sagar karamelatuaren gozoa presente



Sukaldari aritzea gustatuz gero, hementxe aukera

Zapore gozoa dugu pintxo honetan protagonista; izan ere, sagar karamelatuak eta pintxoan topa ditzakegun piperradak ere zapore eztsuak sortuko dizkigu ahoan. Beste aldetik, gozotasunari aurre eginez, pate eta patata txip erara izango ditugu pintxo erakargarri honetan. Hasteko, baina, sagar karamelatu egiteari ekingo diogu; horretarako, sutan lapiko batean, koilarakada bi azukre, ura, limoi-azala eta kanela ipiniko ditugu, eta ondoren sagar-xafla. Horrela, sutan mantenduko dugu, irakin eta sagarra erabat karamelatu arte. Jarraian, patata xaflatan moztuko dugu, eta ondoren oliotan frijituko dugu; behin frijituta, plater batean xukatzen utziko ditugu xaflak. Patatak xukatzen dauden bitarte-

an pateagaz hasiko gara, pate 2-3 cm-ko xafla batean ebaki, arrautzaztatu eta frijitu dugu. Horrenbestez, daborduko, sagar karamelatu, patata frijituak eta pate arrautzaztatua dauzkagu; horiek ogi-xafla txigortu baten gainean jarriko ditugu: lehenengo patata bat, pate ondoren, sagarra erdian, beste patata bat, eta azkenik, pintxo-muinean piperrada ederra jarriko dugu; piper gorri, berde eta tipulagaz egindako piperrada goxoa alegia. Amaitzeko, modena-erreduzioa pittin bat botako diogu pintxoari. Prest gaude zapore eztagandagaz gozatzeko? o

Osagaiak: patata, pate, piper gorria, piper berdea, tipula, arrautza, olio, azukrea, limoi-azala, kanela, sagarra, modena-erreduzioa



LAIAK Taberna



BASARTENA URDULIZ


Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURIMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Bidaia tu egingo duzu egunotan,
baina non amaituko duzu, noraino
iritsiko zara? Helmuga gustukoa
bada, zorianak. Bestela, hartu arnas
eta segi aurrera!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Urtero bezala, amamaren herrira
joateko baliatuko dituzu abuztuko
lehen egunak: amama bisitatu, ondo
lo egin eta bapo jan. Zenbat kilo
ekarriko duzu bueltan?

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Urtero legez, ederto pasatu zenuen
Paella Eguna Getxon: bapo jan eta
edan, abestuz eta dantzatuz. Baina
sasoa ez daukazu lehengoa eta kostako
zaizu indarra berreskuratzea...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Zein gustura zabiltezen jairik jai uda
honetan, nabari da azterketak aspaldi
eta ondo egin zenuela. Segi, segi
gozatzen, oraindino abuztu osoa
daukazu-eta aurretik.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Azkenean iritsi zaizkizu oporrak zuri
ere, bejondeizula! Planik ez zeneukan,
baina datozten egunotan hainbat
proposamen egingo dizute. Denak ezin
aukeratu, ordea...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Surf ikastaro batean hasiko zara,
aspaldi gura zenuen legez. Baina inoiz
ez duzu eduki oreka onik eta uretara
jauziko zara behin baino gehiagotan.
Zurrupada handirik ez egin gero!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Erabaki duzu nor eroango duzun
zugaz Karibera? Pila bat lagunek
eskatu dizu, baina gogoko inork ez.
Aagian zuk emon beharko duzu lehen
pausoa eta proposamena egin, animo!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Sosik barik zenbiltzanez, oporrak
udazkenean hartzea erabaki zenuen eta
orain lasai asko zaude bulegoan: lan
gixi eta nagusien orrorik ez. A zer
pagotxa, lanean eta pozik!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Otsailean atera zenuen txartela
hegazkinerako, Ameriketara joateko.
Bezpera heldu da eta ez duzu
topatzen inon. Argi ibili opor barik
lotu gura ez baduzu!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Maiatzeko azterketetan kale egin
zenuen eta hilabete osoa daroazu
ikasten, jo eta fuego, liburutegian
sartuta. Laster amaituko da kalbarioa,
beraz, eutsi goian!

IRATZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)
Urtero legez, atzerriitik etorriko zaizkizu
lagunak bisitan, baina oraingoan,
aurretik esan barik helduko dira. Zelan
azalduko diezu etxea beteta daukazula
eta aterpera joan behar dutela?

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Orain hilabete landatutako haziak ziztu
bizian hazten ari dira, zu bai lorezain aparta!
Hurrengo pausoa izango da ortuxoa
ipintzea. Animo, tomate eta piper ederrak
ateratzen dira sasoi honetan!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. "... ekinez egina" dio esaerak. Ur lasaietako ontzi zapal txiki. 2. Makilaren lo-gikaren mendean, alegia. Musika nota. 3. Otsok bezala egiten du hontzak. Donostiarrek gogoko izan zuten garai batean. 4. Bare, lasai. Guztiok hartzen gaituen hitz laburra. Edaleek ez dute maiteegi. 5. Erien biltoki. Ibar, haran. 6. Bokala. Milaka kontatu ohi da buruhauste hau. 7. Hona gure sakakortxosa, tirabuxona. Sufrea balio du. 8. Ur gezako arrain honek estimua du Europan barrena, jai du ordea gurean. Agindua. 9. Haur. Barrea adierazten du errepikan. Atzizkia. 10. Erakunde mota. Marinelen identifikazioa. 11. Kasik. Kristauen azken olioak. 12. Interjekzio ezaguna. Une ez gozoa, zaila, gaiztoa.

Goitik behera

1. Aurrekoa gaiztoa eta oraingoa ezin eska-sagoa. Nafarroako herria, Lizarrako merin-dadeko Metautenen. 2. Metal honek diruari eman dio izena toki askotan. Amikuzeko Gamueko. 3. Ipar, itxaropen. Kontsonante dardarkaria. 4. Har ezan. Nafarroako herria, Noainen (n-az emazu zuk). Joaki da. 5. Ardi, hitz elkartzetan. Euskal Telebista. Garai bateko haur-joko. 6. Egitaraua prestatzeko lan. 7. Teoriagilea. 8. Laño, gozo. Ahalmena adierazteko atzizkia. Olerki mota. 9. Emakume izena. Guraso arrak. Alde! 10. Nitrogenoa. Iruñea ondoko herri batekoa. 11. Euri hotza eta xuria. Garai bateko basabehiak. 12. Zestoako auzoa. Sailetan.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nork irabazi du lur gaineko 640 kiloko Euskadiko Sokatira Txapelketa aurten?

> Aurrekoaren erantzuna: Plentziako portua
> Irabazlea: **Nekane Rotaetxe**
*deitu telefonoz: 944 911 337

Zelan dira bizkaieraz uztaila eta abuztua?

- **Zezeila eta bagila**
- **Garagarrila eta agorrila**
- **Martia eta jorraila**

> Aurrekoaren erantzuna: Arroza
> Irabazlea: **Gartzen Zarraga Martin**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik**
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

SARIA **La Gusana**
liburudenda **lagusana**
Tellagorri plaza, ALGORTA. Tel: 94 491 14 12

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



KARMEN GARAIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GORLIZKO FANO AUZOAN, 1970

Gorlizko Ermua mendia ondoan dugu Fano auzoa, orduan ia aldatu ez den auzoa. Orain hiru urte arte, argazkiko landan (gaur egun apur bat behegero) egin izan da urtero erromeria, Begoñako Ama Birjinaren egunaren (abuztuak 15) hurrengo domekan.

Azpimarratzekoa da jai oso herritarra zela eta dela; gorliztar familia osoak (gehi gorliztartetako udatiar batzuk) joaten ziren eta joaten dira. Janaria etxetik prestatuta errotan zuten, argazkiak argi erakusten duenez, eta eguna alaitzeko urte askoan Andrakako errementaria zen Rufino Arrola (GB) trikitilaria eta pandero-jotzaile bat han izaten ziren. ○

Atzean: Maritxu Etxebarria (GB), Mari Karmen Ibarbengoetxea, Antonia Gangoiti (GB).
Aurrean: Mari Karmen Utxupi, Karmen Garai, M^a Asuncion Blanco, Ana Mari Fernandez, Eulogio Fernandez (GB).

AMETS ARZALLUS > bertsolaria

“Nire herrian, kalean jendea euskaraz entzutea dut amets”

Testua: **Nerea Guijarrubia**

Egindako bertso-saio zirrargarriena?

Gutxien espero den momentuan polita ateratzen den hura.

Aitor dezakezun bizioa.

Gozokizalea naiz.

Defini egizu zeure burua berba bitan.

Zalantzia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ken Loachen *El viento que agita la cebada* filmean.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Futboleant. Mutikotatik nire pasioa futbola izan delako.

Badakazu ohitura txarren bat?

Etxetik atera eta gero pentsatzea zer jantzi behar nukeen.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke? Zergatik?

Txoria. Ez dago esan beharrik zergatik.

Zein da zure ametsetako bat?

Nire herrian kalera jaistea eta jendea euskaraz entzutea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Liburu bat, botila bat sagardo, eta maite ditudanetakoko edozein.

Nori egingo zenioke elkarriketa hau?

Joseba Sarrionandiari.

Gorrotu duzun topikoa?

“Hori utopikoa da...”

Domeka batean egiteko planik onena?

Bezperan parranda eder bat egin osteko goizeko loa.

Zein da biharko egunkarian irakurri gura zenukeen berria?

Kalera atera da azken presoak. ○

LABURREAN— Lanbidez kazetaria; halere, bertsolaritzari esker ezaguna dugu Euskal Herri osoan; izan ere, ekain akabuan Algortako Portu Zaharreko *Balkoitik balkoira* bertso-saioan parte hartu zuen; uztailean, barriz, Biotz Alain, urtero legez egiten den Bertso-saio Mundialean entzun ahal izan genuen. 1992an lehen plaza egin zuen, eta geroztik ez du atsedetik hartu; Amets Arzallusek (1983, Hendaia) plazaz plaza, herriz herri jarraitzen du, doinuak, hitzak eta gaiak etengabe josiz. 2009ko Txapelketa Nagusian bigarren lotu zen, Maialen Lujanbioren ostean; ondoren 2010eko Iparraldeko Bertsolari Txapelketa bigarrenez txapela bereganatu zuen. Gaztea izanda ere, ibilbide luzea zein oparoa egin du Ametssek, eta noski, aurrerantzean ere horrela izan bedi!

Aingeru Landa > Izenaduba Basoa

“Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diplomak aukera emon digu produktu hobea eskaintzeko”

Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma daukate 507 establezimenduk eta, urte amaieran, 800 izango dira. Arlo horretan ‘Jardunbide egokirako’ programaren helburua da zerbitzuen kudeaketa hobetzea. Mungia Izenaduba Basoa parkeak parte hartu du programan.

—Zeintzuk izan ziren programa honetan parte hartzeko arrazoiak?

—Ez geneukan bereizgarririk eta, gainera, Jardunbide egokirako programak hobetzeko aukera emon digu: bereizgarria lortu dugulako eta prozesuan asko ikasi dugulako. Interpretazio zentro txikia gara eta proiektuari forma emoteko ondo etorri zaigu.

—Zein abantaila ekarri dizue diplomak?

—Onurak dakartza, adibidez, diru-laguntzak eskatzerakoan: diplomarekin aukera gehiago daukazu laguntza lortzeko, kudeaketa ahalik eta hobea egiteko konpromisoa daukazunez, eta bisita, ahalik eta gustukoena egiteko ahalegina egiten duzunez, Administrazioak hori aintzat hartzen du. Gainera, prozesuan puntu asko aplikatu ditugu: oinarrikoak guztiok dakizkigu, baina gauza sakonagoak ere aplikatu ahal izan ditugu; hau da, ikastaroetan ikasitako hobekuntzak.

—Nolako hobekuntzak izan dira barne-funtzionamenduan, kudeaketan edota azpiegiturretan?

—Arlo guztietan egin ditugu. Hobekuntza Plana ezarri dugu, hornitzaileekin harremana hobetu dugu eskaerak gehiago kontrolatuz, aplikazio barria ipini dugu erreserba sisteman informazio gehiago izateko... Aurretik ere inkestak egiten genituen barne-funtzionamendurako, gure instalazioak ondo dauden ziurtatzeko; baina orain datu-basea dau-

kagu eta gauza gehiago erregistratuz, hobeto kontrolatzen dugu zer hobetu behar dugun. —Turismo arloko profesionali gomen-datuko zenieke Kalitate Turistikoaren Konpromisoa Diploma ezartzea?

—Bai, noski, duda barik. Aukera asko emoten dizu ikasteko, eta zure produktua ahalik eta hobeto eskaintzeko eta publikizatzen.

—Kalitate Turistikoaren Diplomak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

—Bai. Izan ere, bezeroak pozik urteten badira, hori da publikitaterik onena. Kontrara, gure zerbitzua gustuko izan ez badute, ez dira bueltatuko. Beraz, bezeroak pozarren urten behar dute, bueltatuko badira.

—Prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

—Hobekuntza Plana egin dugu. Gainera, epe baten barruan mugitzen zara eta, beraz,

“Bezeroak pozik urteten badira, hori da publikitaterik onena”

epe hori bete behar duzu. Horrek hobetzeko gero eta gogo handiagoa emoten dizu: oso garrantzitsua da hobekuntzak uneoro egitea.

—Kalitatearen kultura zure erakundeant bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

—Zerbitzurako estrategiak txertatu ditugu, Hobekuntza Plana ezarri dugu, teknologia barrietan sartu gara, sorospen titulua daukagu guztiok... ‘Bezero misterioak’ ekintza ere egin dugu eta oso polita izan da: hobekuntzen ostean gauzak ondo egiten ari garela jakiteko aukera emon digu. ○



Aingeru Landa, Izenaduba Basoa parkean

Eusko Jaularitzak, Basquetour, Turismoko euskal agentziagaz batera, enpresarien esku jartzen ditu beharrezko diren baliabide eta laguntzak bere erakundeak lehiakorragoak izateko:

- Jardun Onen Programa: Honen helburua enpresarien “profesionalizazioa” hobetzea da eta norakoaren kontzientzia sortzea. Euskadin 507 establezimenduk lortu du dagoeneko kalitate turistikoagaz konpromisoaren egiaztatzea.

- Q Kalitate Turistikoaren Programa: Bezeroen gogobetetzea bermatzen duen programa. Euskadin 268 establezimenduk lortu du dagoeneko Kalitate turistikoaren Q egiaztatzea.

- Bikaintasun Ereduaren Programa: Progama honek erakundeak proposatzen die kalitateagaz bikaintasun maila igotzea. Euskadin 14 establezimenduk parte hartzen du honetan.

Ezarri Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Bereizgarria zure establezimenduan!

94 607 75 98


www.basquetour.net
info@basquetour.net

Argazki Jaialdia / Festival de Fotografía

GETXOPHOTO

UMEEI GORAZARRE / ELOGIO DE LA INFANCIA

Iraila / Septiembre 2012



ERAKUSKETAK abuztuak 30 - irailak 30

JARDUERAK abuztuak 30 - irailak 2

EXHIBICIONES agosto 30 - septiembre 30

ACTIVIDADES agosto 30 - septiembre 2

antolatzailea / organiza

BEGIHANDI

babesleak / patrocina

Getxo
Auzo Erakunde

BFA
DFB
Bilbao Futbol Federazioa
Deportearen Erakundeak
Deportazioaren erakundeak

ELKINDE
ELKINDE
ELKINDE

Estudios
Durero

bbk

laguntzailea / colabora

uk
uribe kostako
aldizkaria